# LA IDEA COOPERATIVA:
# DEL SERVICIO A LA COMUNIDAD A SU NUEVA CREACIÓN

**Joxe Azurmendi**

*Acto Académico organizado por la*
*Fundación GIZABIDEA en memoria de*
*D. José María Arizmendiarrieta*
*en el XX aniversario de su fallecimiento.*

*Arrasate - Noviembre de 1996*

# AURKIBIDEA / INDICE

EKINTZA AKADEMIKOAREN AURKEZPENA...... 7

LA IDEA COOPERATIVA:
DEL SERVICIO A LA COMUNIDAD A SU
NUEVA CREACION........................................................ 10



*«La Fundación Gizabidea en agradecimiento a los colaboradores institucionales y particulares, que contribuyen, en el presente, al desarrollo de las ideas y objetivos de D. José María».*

# EKINTZA AKADEMIKOAREN AURKEZPENA

Don Joxe Azurmendi ha debido ser operado hace unos días y, aunque hasta esta semana hemos mantenido la esperanza de contar con su presencia, no ha podido ser. Esperamos verlo prontamente entre nosotros. De todos modos, Joxe nos ha enviado su reflexión, último trabajo realizado antes de entrar en el hospital. Por ello queremos dejar constancia de nuestro agradecimiento al esfuerzo que ha realizado y enviarle desde aquí nuestro más cariñoso ánimo.

Y tenemos con nosotros a Joseba Intxausti, muy unido a Joxe por raíces: Zegama, Segura, por formación: Arantzazu, por amor y servicio a la cultura de este País y por amistad. Colaboró con Joxe Azurmendi en la preparación de la edición de "El Hombre Cooperativo". El nombre de Joseba Intxausti se halla unido a todas las expresiones culturales vascas de la historia reciente, actuando de impulsor de muchas de ellas, incluidas algunas de nuestra propia historia cooperativa. Ejerce de secretario de la "Fundación Vasca" desde 1995.

Gracias, Joseba.

Son veinte años, espacio suficiente para alejar su recuerdo de nuestro mente, para tenerlo presente en la nostalgia, para hacérsenos molesto cuando nos lo mencionan, para adentrarnos en lo profundo de su mensaje y extraer un compromiso. Hoy en día no es fácil la reflexión. El compromiso se asumió en un momento por

Duela egun batzuk Joxe Azurmendiri ebakuntza egin behar izan zioten eta, aste honetara arte geure artean izateko itxaropenaz egon garen arren, azkenean ezinezkoa izan da. Hala ere, laster gure artean ikustea espero dugu. Edonola ere, Joxek bere gogoeta eta hausnarketak bidali dizkigu, ospitalera joan aurretik egindako azken lana. Horregatik, bereziki eskertzen diogu egindako ahalegina eta gure elkartasuna adierazten diogu hemendik; gainera, lehenbailehen oneratzea opa diogu, noski.

Joxeren ordez, Joseba Intxausti dugu geure artean, Joxeri oso lotua arrazoi askorengatik: sustrai beretsukoak ditugu: bata zegamarra, bestea segurarra; heziketa beretsukoak: biak Arantzazun egonak; biak euskal kulturaren zale eta langile nekaezinak; eta biak elkarren adiskide. Gainera, Joseba Joxe Azurmendirekin elkarlanean aritu zen "El Hombre Cooperativo" liburuaren argitalpena prestatzen. Joseba Intxaustiren izena euskal kulturaren azken urteotako ekintza nagusi askori lotua dago; sarritan bera izan da bultzatzailea ere, baita geure historia kooperatiboko batzuena ere. 1995az geroztik "Euskal Fundazioan" idazkari-lanak egiten ditu.

Eskerrik asko, Joseba.

Hogei urte dira, aski denbora haren oroitzapena gure burutik urruntzeko, nostalgiaz geure artean izateko, aipatzen digutenean ezeroso sentitzeko, haren mezuaren sakonean sartu eta konpromezua ateratzeko. Gaur egun ez da erraza hausnar-

parte de cada uno de nosotros y el día a día con su enorme y, muchas veces, dolorosa terquedad, nos vuelve realistas.

Don Joxe Azurmendi, el estudioso más profundo de Arizmendiarrieta, nos comentó cuando preparábamos esta conferencia, que cuando inició su análisis sobre el pensamiento de Don José María, se preguntaba qué esperaban de él aquellas personas que le habían encomendado el trabajo. Él no veía nada relevante en lo que iba leyendo. No obstante, conforme progresaba y profundizaba, iba descubriendo una coherencia entre la teoría y su aplicabilidad a la realidad, difícilmente alcanzable en cualquier otro pensador. Habrá que concluir que lo descubrió porque lo buscó con actitud positiva, con ganas de saber, de aprender.

Tenemos la suerte de contar en el día de hoy con sus reflexiones "LA IDEA COOPERATIVA: DEL SERVICIO A LA COMUNIDAD, A SU NUEVA CRACIÓN". Un título que, sin duda, no sesulta fácil pero que encubre algo que se intuye: seguramente, un emplazamiento, un aliento, una nueva exigencia para quienes han realizado una gran aportación a este País, para que renueven su reflexión y acometan nuevos desafíos.

La fundación GIZABIDEA es heredera, no sólo de los patrimonios del complejo Educativo Cooperativo. Es, asimismo, la guardiana del modelo educativo que lo sustenta. En este momento ha asumido la tarea de revitalizar tal modelo, de elevar a la conciencia social los valores más genuinos del mismo, lo que conlleva autorresponsabilidad, aceptación del compromiso.

Sin duda alguna, la reflexión de Don Joxe Azurmendi será enriquecedora y ofrecerá claves interesantes para muchas de nuestras incógnitas, dudas, crisis y éxitos.

keta edo gogoeta egitea. Momentu batean gutariko bakoitzak konpromezua bere gain hartu zuen eta eguneroko gurpilak, bere setakeria izugarri eta askotan mingarriaren bidez, errealista egiten gaitu.

Joxe Azurmendik, Arizmendiarrietaren aztertzaile sakonenak, hitzaldi hau prestatzen ari ginela esan zigun, D. Jose Mariaren pentsamenduari buruzko azterketari ekin zionean, zera galdetzen zuela bere artean: "zer espero ote dute nigandik lan hau egiteko ardura eman didatenek?" Berak ez zuen ezer garrantzitsurik ikusten irakurtzen ari zen gauzetan. Hala ere, aurrera egin eta sakondu ahala, koherentzia aurkitu zuen teoriaren eta errealitateko aplikagarritasunaren artean, nekez lor daitekeena beste edozein pentsalarirengan. Ondorioztatu beharko dugu jarrrera positiboz, jakinminez, ikasteko gogoz bilatu zuelako aurkitu zuela.

Gaur bere gogoeten berri izateko zori ona dugu: "LA IDEA COOPERATIVA: DEL SERVICIO A LA COMUNIDAD, A SU NUEVA CREACION". Ez da oso izenburu erraza, baina intuizioz atera daiteke zer estaltzen duen: ziur aski deia, animoa, eskakizuna Herri honi ekarpen handia egin diotenei hausnarketa berritu eta erronka berriei aurre egin diezaieten.

GIZABIDEA Fundazioa Kooperatiben Heziketa Arloko ondareen oinordeko da. Baina, gainera, oinarrian dagoen hezkuntza-ereduaren zaintzaile eta jagole ere bada. Une honetan eredu hori berpiztu eta indartzeko eginkizuna hartu du bere gain, eta gizartearen kontzientzian sartu nahi ditu eredu horren balorerik garrantzitsuenak; honek norberaren ardura eta konpromezuaren onarpena eskatzen ditu.

Zalantzarik gabe, Joxe Azurmendiren gogoetak aberasgarriak izango dira eta klabe interesgarriak eskainiko dizkigute geure inkognita, zalantza, krisi eta arrakasta askotarako.

Por último, señalar que este año no vamos a proceder a la entrega de premios del concurso literario. Hemos atendido la petición de los centros escolares en el sentido de dotar de más tiempo para la realización del trabajo: prácticamente todo el curso, y no como antes, dos meses escasos. Dentro de un año se entregarán los premios a los ganadores del concurso que, sobre el tema "incidencia de los medios de comunicación en la persona", vienen ya trabajando los alumnos.

Azkenik, ohartxo bat: aurten ez dugu egingo literatur lehiaketako sarien banaketa. Ikastetxeek eskatutakoa kontuan hartu nahi izan dugu, hau da, denbora luzeagoa uztea lana egiteko, ia ikasturte osoa, eta ez bi hilabete eskas orain arte bezala. Beraz, urtebete barru emango zaizkie sariak irabazleei, baina dagoeneko ikasleak lanean ari dira aurtengo gaiaz: "Komunikabideen eragina pertsonarengan".

Jesus M.ª Herrasti
Lehendakaria

# La idea cooperativa: del servicio a la Comunidad a su nueva creación



*Joxe Azurmendi*

El modo más fácil, un poco trivial si quieren, de abrir una conferencia es comenzar contando una anécdota. Hace algunos años un investigador japonés, que preparaba un congreso internacional asiático sobre cooperativismo, me visitó en Zorroaga, en la vieja Facultad de Filosofía. Venía bien preparado, como suelen, con una traductora que le acompañaba, grabadoras, un cuaderno con una lista larga muy detallada de preguntas, casi todas sobre el cooperativismo de Arrasate. Se interesaba tambien en general sobre la historia del movimiento social europeo. Por la historia vasca, la filosofía europea. Había leído detenidamente la traducción japonesa de

Hitzaldia hasteko modurik errazena, arin samarra agian, anekdota bat kontatzea da. Duela urte batzuk, Japoniako ikertzaile bat nazioarteko biltzar bat antolatzen ari zen Asian kooperatibismoari buruz, eta Zorroagara etorri zitzaidan, Filosofiako Fakultate zaharrera. Ohi bezala, ongi prestatua zetorren: berekin zekartzan itzultzailea, grabagailuak, koadernoan galdera-zerrenda luze eta oso zehatza, gehienak Arrasateko kooperatibismoari buruzkoak. Oro har, Europako gizarte-mugimenduaren historiaz ere interesatua zegoen; eta euskal historiaz, Europako filosofiaz... Zehatz-mehatz irakurria zuen nik Arizmendiarrietaren pentsamenduaz

mi libro sobre el pensamiento de Arizmendiarrieta. Llevábamos hablando bastante tiempo sobre temas tan diversos como historia de los sindicatos, pensamiento religioso de Arizmendiarrieta, tradiciones vascas o avatares del socialismo europeo, cuando me di cuenta de que una pregunta surgía siempre de nuevo en cada tema: es exportable el cooperativismo de Mondragón? Para todos Uds. ésta es una pregunta ya vieja y muy conocida sin duda.

¿Se puede exportar a otros países -otras culturas, incluso a otros núcleos del País Vasco, como la margen izquierda o la Rivera navarra- el modelo arizmendiano de cooperativismo? Se hace muchas veces esta pregunta. Y es probable que si no encuentra respuesta, es porque la pregunta esta mal hecha: por lo menos se puede sospechar con buenas razones que ésa no es una pregunta (¿se puede exportar el espíritu de campechanía mondragonés? ¿el éxito?, etc.), sino cien preguntas diferentes ocultas en una. En todo caso, a nosotros no nos interesa ahora la respuesta, sino la pregunta misma.

Para empezar, ¿qué pregunta exactamente esa pregunta? La pregunta por la exportabilidad del cooperativismo, ¿será una y la misma, por ejemplo, hecha en Arrasate y hecha desde el Japón?

En Alemania funciona un Instituto de relaciones culturales y religiosas intercontinentales, especialmente con Asia, a cuyo director he conocido este verano en Aquisgran, el Dr. Georg Evers. El conoce personalmente muy bien el Japón, donde en su juventud hizo los estudios y vivió seis años, manteniendo luego siempre contacto ininterrumpido desde Europa con aquel país. A él debo la siguiente información.

idatzitako liburuaren japonierazko itzulpena. Denbora dezente eman genuen hizketan sindikatuen historiaz, Arizmendiarrietaren erlijiopentsaeraz, euskal tradizioez edo Europako sozialismoaren gora-beherez, eta gai guztietan beti galdera berbera sortzen zela ohartu nintzen: esportagarria al da Arrasateko kooperatibismoa? Zuentzat galdera hau zaharra eta ongi ezaguna izango da, zalantzarik gabe.

Arizmendiarrietaren kooperatibismo-eredua, esporta al daiteke beste herrialde batzuetara — beste kultura batzuetara, edo Euskal Herriko beste alde batzuetara, Ibaizabalen ezkerraldera edo Nafarroako Erriberara adibidez—? Sarri egiten da galdera hau. Eta erantzunik ez bada aurkitzen, baliteke galdera gaizki eginda dagoelako izatea. Edo, behintzat, pentsa daiteke —eta ongi oinarrituta, gainera— hori ez dela galdera bakarra, baizik eta ehun galdera desberdin bakar baten atzean gordeta (esporta al daiteke arrasatearren izaera xaloa? eta arrakasta? etab.). Edonola ere, guri ez zaigu orain erantzuna interesatzen, galdera bera baizik.

Hasteko, zein da zehazki galdera horren muina? Kooperatibismoaren esportagarritasunari buruzko galdera, bera eta bakarra ote da Arrasaten eginda edo Japonian eginda, adibidez?

Alemanian bada kontinentearteko —batez ere Asiarekiko— kultur eta erlijio-harremanetarako Institutu bat; honen zuzendaria, Georg Evers doktorea, aurtengo udan ezagutu dut Akisgranen. Berak oso ongi ezagutzen du Japonia, gaztaroan hantxe egin baitzituen ikasketak eta sei urtez bizi izan zen han; geroztik, eta Europatik bertatik, etengabeko harremana izan du herrialde harekin. Berari zor dizkiot ondorengo argibideak.

La experiencia con españoles y portugueses fue mala para los japoneses. Vieron cómo primero aparecía el misionero, pronto le seguía el comerciante, y tras ellos llegaba al puerto el barco con hombres armados que bajaban a tierra con aire de conquistadores. Los japoneses sintieron amenazada su personalidad y su independencia: a mediados del siglo XVII acabaron cerrando los puertos herméticamente a todo extranjero y tratando de borrar toda influencia europea ya introducida, fuera ésta religiosa o cultural. (En Gipuzkoa tenemos un santo muerto en esos conflictos, San Martin, martirizado en Nagasaki, cuya cuna se disputan entre Beasain y Vergara). Durante más de doscientos años Japón vivió en el aislamiento, encerrada sobre sí misma. A mediados del siglo XIX el auge industrial impulsa a los países europeos a la expansión imperialista por todo el mundo en busca de mercados. Asia, especialmente China y Japón, se convierten en objetivo codiciado. Mercantes ingleses y franceses que osan acercarse a los puertos japoneses provocan repetidos incidentes. Hasta que un buen día el comodoro norteamericano M. C. Perry apareció con sus cañones en la bahía de Tokyo y, con estas razones contundentes, impuso el -así se le llama- Tratado de Amistad y Relaciones Comerciales americano-japonés de Kanágawa (1854), por el que el Imperio del Sol Naciente quedaba abierto a los occidentales. La reacción japonesa ha sido inmediata: la famosa Reforma Meiji (del "Gobierno Ilustrado"), en la que se compromete activamente el mismo Emperador, dando un viraje total a la política de gobierno, instaurando una nueva línea, totalmente contraria a la seguida hasta entonces, con el fin de fortalecer la nación y, para ello, modernizarla radicalmente. Muy cerca de ellos, en el caso de China, los japoneses habían tenido oportunidad de observar cómo las relaciones amistosas con amigos económica y militarmente mucho más potentes, acaban pronto en simples relaciones de dominación. Y, obligados a dicha amistad, han demos-

Espainiar eta portugaldarrekin esperientzia txarra izan zuten japoniarrek. Lehenik, misiolaria joan zitzaiela ikusi zuten, gero merkataria, eta haien atzetik gizon armatuekin itsasuntzia iritsi zitzaien portura, konkistatzaile bezala lehorreratuz. Japoniarrek mehatxupean ikusi zuten beren nortasun eta independentzia; XVII. mendearen erdi aldera erabat itxi zituzten portuak atzerritarrentzat, eta europarren eragin guztiak ezabatzen saiatu ziren, erlijio nahiz kultur mailakoak. (Gipuzkoan badugu santu bat gatazka haietan hildakoa, San Martin, Nagasakin martirizatua, honen jaioterria eztabaidagai delarik Beasain eta Bergara artean). Berrehun urte baino gehiago eman zituen Japoniak isolaturik, bere baitan bildua. XIX. mendearen erdi aldera, industri gorakadak zabalkunde inperialistara bultzatu zituen Europako herrialdeak, mundu osoan merkatuak bilatzeko. Asia, Txina eta Japonia batez ere, helburu gutiziatu bihurtu ziren. Japoniako portuetara hurbiltzera ausartzen ziren Ingalaterra eta Frantziako merkantzi untziek ika-mikak izaten zituzten behin eta berriro. Baina halako batean M.C. Perry iparramerikar komodoroa agertu zen kanoiekin Tokyoko badian eta, arrazoi biribil hauekin, Kanagawako Adiskidetasun eta Merkataritza Harreman amerikano-japoniarretarako Ituna (1854) ezarri zuen; ondorioz, Jaiotzen ari den Eguzkiaren Inperioa mendebaldarrentzako zabalik geratu zen. Japoniarren erreakzioa berehalakoa izan zen: Meiji Erreforma ospetsua ("Gobernu Argitua"rena); enperadorea bera aktiboki konprometitu zen, erabat aldatu zen gobernu-politika, ordura arte jarraituriko norabidearen guztiz kontrakoa hartu zen, nazioa sendotzeko eta, horretarako, sustraitik modernizatzeko. Beraiengandik oso hurbil, Txinaren kasuan, japoniarrek izan zuten aukera ikusteko ekonomikoki eta militarki askoz ahaltsuago diren lagunekiko harreman adiskidetsuak laster menpekotasunezko harreman huts bihurtzen direla. Adiskidetasun horretara behartuta zeudelarik, guztiok miresten dugun herri buruargi eta izaera

trado ser el pueblo inteligente y con caracter que todos admiramos. Se han planteado su situación con toda crudeza (sigo siempre los términos del Dr. Evers) con este razonamiento simple y claro: 1º. no es posible salvar la independencia nacional sin una radical modernización; pero, 2º. la modernización exigirá radicales transformaciones en las costumbres sociales, intelectuales, morales, históricas del Japón. ¿Sería posible modernizar un viejo país cargado de tradiciones casi inamovibles que desde cientos de años pesaban sobre toda la vida social, la guerra, el trabajo, la familia, la religión, el arte, toda la cultura? ¿A qué precio? Yo creo que lo decisivo es esto: se han enfrentado con toda claridad y conciencia a la cuestión central, ¿cuáles son exactamente las exigencias que la modernización plantea al Japón?

sendokoa dela erakutsi dute. Beren egoera gordintasun osoz planteatu dute arrazoiketa xume eta argi hau eginez (Evers doktorearen arabera ari naiz beti): 1ª Ezin da nazio-independentzia gorde erabat modernizatu gabe; baina 2ª, modernizazioak erabateko aldaketak eskatuko ditu Japoniako gizarte, adimen, moral eta histori ohituretan. Moderniza ote daiteke herrialde zahar bat, ehundaka urtez bere gizarte-bizitzan, lanean, familian, erlijioan, artean, kultura osoan izan dituen tradizio aldagaitzekin? Zeren truke? Hauxe da, nire ustez, erabakigarria; argi eta garbi aurre egin diote arazo nagusiari: zein dira zehazki modernizazioak Japoniari planteatzen dizkion eskakizunak?



Un pueblo se puede dejar invadir por la modernización, más o menos inconsciente, y entonces resulta víctima de la misma, como creo que es el caso nuestro. Los japoneses han preferido enfrentarse a la modernización y a sus consecuencias con todo rigor. Rigor intelectual y moral. En el proceso de reflexión que ha iluminado la gran reforma nacional ("la revolución desde arriba") el Dr. Evers destacaba como una disposición especialmente importante la decisión de enviar dos delegaciones, una a los Estados Unidos de América y otra a Europa, con el objeto de analizar a fondo la modernidad, e. d., la ciencia, la técnica y la organización occidentales, que aparecían para los japoneses como las manifestaciones más evidentes de su superioridad. Estas delegaciones debían estudiar las sociedades modernas consideradas superiores con atención siempre a estas dos preguntas: 1. ¿son las lenguas occidentales, especialmente el inglés, condición necesaria de la modernización? 2. ¿es el cristianismo -entiéndase: su sistema de valores, etc., que impregna las sociedades occidentales- condición necesaria para la modernización? La respuesta en ambos puntos fue que no, lo que llevó a la fórmula de la modernización japonesa que suele resumirse en el slogan: "Técnica occidental, Etica oriental". Pero a nosotros nos interesan también aquí menos las respuestas que la preguntas.

Todo esto puede parecer una historia edificante del Japón arreglada y contada como Guía de Perplejos para vascos despistados. Seguramente más de uno de Uds., oyéndome, ha traducido en su interior aquellas dos preguntas de los japoneses a nuestra situacion: ¿es compatible la modernizacion con nuestros valores tradicionales, rurales? (Porque todos somos conscientes de que será obligado sacrificar, transformar, una serie de costumbres y modales que nos son muy queridos, comenzando, por poner un ejemplo, por los hábitos de la comida y la bebida y sus horarios). O pasando a un punto más delicado:

Baliteke herri bati, gehiegi jabetu eta ohartu gabe, modernizazioa gainera etortzea, eta orduan honen biktima bihurtzen da; hau dela gure kasua uste dut. Japoniarrek nahiago izan dute modernizazioari eta ondorioei zorroztasun osoz aurre egin, zorroztasun intelektual eta moralez. Nazio-erreforma handia ("goitikako iraultza") gidatu duen hausnarketa-prozesuan, Evers doktoreari oso garrantzitsua iruditzen zitzaion bi ordezkaritza bidaltzeko erabakia: bata Amerikako Estatu Batuetara eta bestea Europara; hauen helburua modernitatea sakon aztertzea zen, hots, mendebaldeko zientzia, teknika eta antolaketa aztertzea, japoniarrentzat hauek baitziren europarren nagusitasunaren adierazpenik nabarienak. Ordezkaritza horiek goi-mailakotzat jotako gizarte modernoak aztertu behar zituzten, bi galderari erantzuten saiatuz betiere: 1. Mendebaldeko hizkuntzak, batez ere ingelesa, beharrezko baldintza ote dira modernizaziorako? 2. Kristautasuna —alegia, mendebaldeko gizarteetan eragina duen balore-sistema, etab.— beharrezko baldintza ote da modernizaziorako? Bi puntuotan erantzuna ezezkoa izan zen, eta ondorioz japoniarren modernizazio-formula sortu zen, slogan honetan laburtua: "Mendebaldeko teknika, Ekialdeko etika". Baina guri hemen ere gutxiago interesatzen zaizkigu erantzunak galderak baino.

Baliteke honek Japoniako historia eredugarri bat ematea, euskaldun despistatuentzako Txundituen Gida bezala moldatua eta kontatua. Esan dudana entzutean, ziur aski zuetako batek baino gehiagok aplikatuko zizkion geure egoerari japoniarren bi galdera horiek: bateragarria ote da modernizazioa gure tradizioekin, baserrigiroko baloreekin? (Guztiok ohartzen gara derrigorrez sakrifikatu eta eraldatu beharko ditugula oso maite eta kutunak zaizkigun ohitura eta jokamoldeak; adibide bat jartzeko, janedanari buruzko ohitura eta ordutegiak). Edo gai delikatuago bati dagokionez: orain ekonomiaren mundializazioak guztiok ingelesa, arabiera,

ahora que la mundialización de la economía exige que todos aprendamos inglés, árabe, ruso, ¿es posible compaginar modernizacion y euskara? (Uds. recordarán que Unamuno, por ejemplo, respondía negativamente). Preguntas que al fin sólo se responden con hechos... Yo le oía fascinado, como si estuviera hablando de nuestro caso, pero el Dr. Evers, que sabe mucho de Japon, no tiene ni idea de nuestros problemas y no pretendía referirse a ellos, ni arreglar los hechos a nuestro gusto. Lo que evidentemente convierte su relato en tanto más aleccionador.

Volviendo ahora a la pregunta, es exportable la experiencia de Mondragón, se comprende que tiene un sentido muy distinto hecha aquí, o planteada desde el Japón, o según las circunstancias del contexto cuándo y dónde se hace la pregunta. Así la cuestión de la exportabilidad ha adquirido nuevo valor con lo que se llama la "caída del muro". Mientras el mundo vivía dividido en capitalismo y comunismo, enfrentado política, social y militarmente en dos bloques fanatizados, la opinión dominante -que siempre es la opinión de los dominantes- podía considerar el modelo cooperativo, con su pretensión de no ser capitalista ni comunista, bien como una utopía trasnochada, bien como un fenómeno de economía marginal, más o menos tolerable o intolerable, según los gustos de cada uno o los intereses del opinante. Desaparecido el comunismo como modelo alternativo posible, para todos aquellos que no creen que nos encontremos ya en ese famoso final de la historia, la aplastante victoria del capitalismo trae consigo irremediablemente su crisis. Porque, "y ahora qué?", es la inevitable pregunta, si efectivamente no estamos al final de la historia o embarrancados para siempre. El capitalismo ha ganado, no hay ninguna duda: ¿y ahora qué? Nada es eterno en la historia, ¿cómo será la siguiente fase, el siguiente modelo? ¿Hacia dónde avanzaremos?Como se lee en el nuevo libro de los profesores de la Cornell University de Nueva York W. F. Whyte

errusiera ikastea eskatzen duenean, bateragarri ote dira modernizazioa eta euskara? (Zuek gogoan izango duzue Unamunoren erantzuna ezezkoa zela, adibidez). Galdera hauei azkenean egitateekin bakarrik erantzuten zaie... Nik neuk txundituta entzuten nion esaten zidana, geure kasuaz ari balitz bezalaxe, baina Evers doktoreak, Japoniaz asko jakin arren, ezer ez daki gure arazoez eta ez zuen hauetaz jarduteko asmorik, ezta gauzak gure gustura aldatzeko ere. Jakina, honek are interesgarriago bihurtzen du haren kontaketa.

Berriro galderara itzuliz —esportagarria ote da Arrasateko esperientzia?—, garbi ulertzen da orain oso esanahi desberdina duela hemen eginda edo Japoniatik planteatuta, edota galdera egiten den denbora- eta leku-testuinguruaren arabera. Honela, esportagarritasunaren kontuak beste balio bat hartu du "harresiaren erorketa" delakoarekin. Mundua kapitalismoaren eta komunismoaren artean zatikatuta, politikoki, sozial eta militarki elkarren aurkako bi bloke fanatizatutan banatuta bizi zen bitartean, iritzi nagusiak —eta hau beti nagusien iritzia izaten da— eredu kooperatiboa (kapitalista edo komunista izan nahi ez duena) utopia zaharkitutzat edo ekonomia marginalaren fenomenotzat har zezakeen, jasangarri edo jasangaitzagoa norberaren gustuaren edo iritzi-emailearen interesen arabera. Komunismoa, eredu alternatibo gisa, desagertu denez, kapitalismoaren erabateko garaipenak halabeharrez krisia dakar berekin, historiaren bukaera ospetsu horretan aurkitzen garenik sinesten ez duten guztientzat. Zeren eta, historiaren bukaeran edo betirako hondoa jota ez bagaude, ezinbesteko galdera hau da: "eta orain, zer?" Kapitalismoak irabazi du, horretaz ez dago zalantzarik: eta orain, zer? Historian ezer ez da betiko. Nolakoa izango da hurrengo fasea, hurrengo eredua? Norantz joango gara? New York-eko Cornell University-ko W.F. Whyte eta K.K. Whyte irakasleek liburu berrian diotenez, galdera horien aurrean "Arrasate ins-

y K. K. Whyte, ante estas preguntas "Mondragón puede servir de inspiración a quienes confían en hallar cauces para seguir una concepción humanística mientras hacen frente a la dura realidad económica y tecnológica. Mondragón demuestra que no es fácil hacer frente a ese desafío, pero que puede hacerse".

Aquí esta cita no tiene el sentido de pretender enorgullecer a los cooperativistas en la memoria de sus laureles —un orgullo que tampoco sería ilegítimo del todo—, sino el de recordar el desafío con el que hoy nos encontramos todos. Pero también quisiera tener el sentido de la gratitud hacia aquel hombre que primero fue el principal inspirador de esta experiencia, y luego, con una tenaz reflexión continuada, la acompañó día a día en su desarrollo, sin ampararse en ideas o posiciones una vez adquiridas. Durante años Don José Maria ha sido el ejemplo vivo y el maestro de una evolución profundamente reflexionada, trabajada, tanto en su vida interior personal (de ésto sólo puedo hablar en realidad en la pequeña medida en que sus escritos nos permiten adivinarla) como en el proceso de desarrollo de la experiencia cooperativa en sus diversos niveles económico, social, humano. Para la tarea que se impuso, Don José María, aunque con la robusta educación del caserío y del Seminario, venía de un mundo lejano y ha tenido que rehacer todo el bagaje cultural e intelectual que traía de su formación, para ir rehaciéndose enteramente, sin renunciar por ello a sus raíces. No lo ha hecho dejándose simplemente llevar por la necesidad del momento o la moda. Digamos que Arizmendiarrieta siempre ha hecho, antes que algo grande o pequeño, algo que casi nadie hace; y que quizá nadie hace desde que él nos dejó: esa cosa tan simple como es detenerse a meditar sobre el trabajo diario. Precisamente eso que vuelve a aparecer en todo el mundo como una necesidad apremiante en el momento actual de crisis.

pirazio-iturri izan daiteke ikuspegi humanistikoari jarraitzeko bide bila dabiltzanentzat, aldi berean errealitate ekonomiko eta teknologiko berriari aurre eginez. Arrasatek erakusten du ez dela erraza erronka horri aurre egitea, baina egin daitekeela".

Aipamen honen helburua ez da kooperatibistak beren garaipenetan harroaraztea —nahiz eta harrotze hori ez litzatekeen erabat bidegabea izango—; helburua, gaur egun guztioi dagokigun erronka zein den gogoratzea da. Baina gizon batenganako esker ona ere azaldu nahi nuke; alegia, lehenik esperientzia honen inspiratzaile nagusi izan zen eta gero, etengabeko hausnarketaz, eguneroko garapenean lagundu zion gizonaganako esker ona, ez baitzen lorturiko ideia edo jarreren erosotasunean babestu. Urte askotan zehar Don Jose Maria eredu bizia izan zen, sakon hausnartu eta landuriko bilakaeraren maisu, bai bere barne-bizitzan (honetaz bere idazkiek adierazten diguten neurri txikian bakarrik hitz egin dezaket), baita kooperatiba-esperientziaren garapen-prozesuan ere, ekonomi, gizarte eta giza mailetan. Bere gain hartu zuen eginkizunerako, Don Jose Maria baserriko eta seminarioko heziketa sendoarekin baina urrutiko mundu batetik zetorren, eta aurretiaz zeukan zama kultural eta intelektual guztia berregin behar izan zuen, dena berriro eraikitzeko, eta hala ere bere sustraiei uko egin gabe. Ez zuen egin momentuko edo modaren premia eta eskakizunei amore emateagatik. Esango nuke Arizmendiarrietak beti egin zuela, zerbait handia edo txikia egin aurretik, ia inork egiten ez duen zerbait, eta hark alde egin zigunetik agian inork egiten ez duen baina oso sinplea den zerbait: eguneroko lanaz gogoeta egitea. Hain zuzen ere, egungo krisialdian eta kinka larrian mundu osoan behar-beharrezkotzat jotzen den gauza da.

No hace falta decir que aquí no hablamos de crisis en el clásico sentido marxista de contradicciones agudizadas del capitalismo, que debían provocar que el sistema estallara por dentro al no poder ya funcionar. Los problemas del capitalismo no son problemas técnicos de funcionamiento. Está claro que funciona muy bien. La crisis se refiere, no a las técnicas del sistema, sino a los hombres y mujeres del sistema, a las ideas, a las esperanzas de futuro. Ese "orden nuevo" futuro del que a veces parece que hasta nos hemos olvidado ya, mostrando con ello hasta qué grado efectivamente estamos sumergidos en la difusa crisis que nos obceca. Perdidos en el presente, sin futuro. Crisis que puede detectarse con facilidad en Europa tras la ruina de las grandes ideologías históricas, en las izquierdas desorientadas; pero seguramente también en el seno del cooperativismo arizmendiano, por la sucesión de las generaciones, por el natural cansancio, por las necesidades de readaptación a la nueva situación mundial, de crecimiento, de realismo contra espiritu, quizá también por falta de competencia y lucha ideológica. Hace unos años había multitud de diversas izquierdas que criticaban el cooperativismo. ¿Es positivo que ya no quede nada de esas críticas? ¿Es que ya no quedan sueños? ¿No queda nada que mejorar, superar?

Se nos impone a todos el retorno a las fuentes. ¿De dónde hemos partido? ¿A dónde queríamos llegar? Se impone una nueva reflexión de la idea original y originante del proyecto. Pero no sólo del cooperativismo de Mondragón, sino del cooperativismo, a las raíces de la idea cooperativa misma; y también de todo el movimiento social europeo (la crisis es general), antes que éste se dividiera en los movimientos cooperativo/sindical/de Partidos políticos, que han acabado disociándose e incluso combatiéndose mutuamente. Aquí mismo seguramente sigue habiendo celos y roces entre movimiento cooperativo y sindicatos o Partidos más o menos

Jakina, hemen ez gara krisiaz ari marxismoaren zentzu klasikoan, kapitalismoak bizituriko kontraesanen zentzuan, hauek sistemaren barneleherketa eragin behar zutelarik funtzionatu ezinean. Kapitalismoaren arazoak ez dira funtzionamenduko arazo teknikoak. Alde horretatik garbi dago ongi funtzionatzen duela. Krisia ez da sistemako teknikei buruzkoa, sistemako gizon eta emakumeei buruzkoa baizik, ideiei eta etorkizuneko itxaropenei buruzkoa. Batzuetan ematen du ahaztu ere egin zaigula etorkizuneko "ordena berria"rena, honekin garbi erakutsiz zenbateraino gauden murgilduta itsutzen gaituen krisi nahasian. Orainaldian galduta, etorkizunik gabe. Ideologia historiko handien hondamendiaren atzean, krisi hau erraz sumatu daiteke Europan, desorientaturik dabiltzan ezkerretan; baina, ziur aski, baita Arizmendiarrietak abiarazitako kooperatibismoaren barruan ere: belaunaldien segidagatik, normala den nekeagatik, munduko egoera berrira egokitu eta moldatu beharragatik, hazteko eta izpirituaren gainetik errealismoa jartzeko premiagatik, baita agian ideologi lehia eta borroka ezagatik ere. Duela urte batzuk kooperatibismoa kritikatzen zuten ezkerrak zeuden. Positiboa al da ezer ez gelditzea kritika haietatik? Ez al da jadanik ametsik gelditzen? Ez da zer hobeturik edo gainditu beharrekorik gelditzen?

Sorburuetara itzuli beharko genuke guztiok. Nondik abiatu gara? Nora iritsi nahi genuen? Proiektua sortu zuen jatorrizko ideiari buruzko gogoeta berria egin beharra dago. Baina ez bakarrik Arrasateko kooperatibismoari buruzkoa, baita oro har kooperatibismoari buruzkoa ere, ideia kooperatiboaren beraren sustraiei buruzkoa, alegia; eta Europako gizarte-mugimendu osoari buruzkoa (orokorra baita krisia), baina mugimendu hau kooperatiba, sindikatu eta alderdi politikoen mugimenduetan zatitu aurretiko egoera kontuan hartuta; izan ere, elkarrengandik gero eta gehiago banatu eta azkenean elkarri erasoka bukatu dute. Hemen berton

sociales o socialistas. Restos de una vieja herencia caducada. Creo que nosotros podemos y debemos dar ya por terminada esa fase no demasiado gloriosa de la historia europea. Tenemos que buscar otra vez las raíces, volver a la utopía común. Al núcleo original, que Arizmendiarrieta condensó en su concepto del trabajo, y que Uds. permitirán que yo resuma hoy en una sola frase suya bien conocida: "El trabajo es, ante todo, un servicio a la comunidad". Y debemos preguntarnos: ¿aquí y ahora, qué puede significar para nosotros este concepto —el trabajo como servicio a la comunidad— en una reflexión seria del momento actual? Este será el tema que nos ocupe en lo que sigue.

Si he de ser sincero, a los cooperativistas nada podría ni quisiera decirles; nada, cuando menos, que no haya aprendido de ellos. Nada nuevo, solamente una pequeña meditación acerca de ese concepto básico de comunidad. Más concretamente, me ceñiré exclusivamente a recordar la transcendencia del citado principio. La comunidad no se limita exclusivamente a la comunidad laboral o fábrica: también es comunidad el pueblo, el valle, la nación, e incluso, si quieren, toda la humanidad que se halla en conexión con nosotros.

Según parece, la repetida mención de la comunidad conlleva un riesgo, y precisamente podríamos comenzar por ahí:

a) Efectivamente, en la sociedad actual —a pesar del desempleo y los graves problemas existentes— a la gente y, sobre todo, a muchos jóvenes les resulta muy cómodo atribuir toda la responsabilidad a la comunidad o al Estado y esperar de estos las soluciones, en vez de responsabilizarse activamente por sí mismos, de su trabajo y de su futuro. Es por ello que algunos cooperativistas, así como no cooperativistas, sufren una especie de alergia entre nosotros en cuanto se cita la comunidad: ahora, dicen, es la

ere ziur aski izango da jeloskortasunik eta tirabirarik mugimendu kooperatiboaren eta sindikatu edo alderdi sozial edo sozialisten artean. Dagoeneko zaharkitua dagoen iraganaldiko aztarnak dira horiek. Uste dut guk bukatutzat eman behar dugula Europako historian hain loriatsua ez den garai hori. Sustraiak bilatu behar ditugu berriro, utopia komunera itzuli. Jatorrizko muin edo mami hori, Arizmendiarrietak lanaren kontzeptuan bildu zuen, eta zuen baimenaz hemen laburtuko dut haren esaldi ospetsu bakar batez: "Lana komunitatearentzako zerbitzua da, batez ere". Eta geure buruari galdetu behar diogu: hemen eta orain, egungo egoeraz hausnarketa serioa eginez, zer esan nahi du —lana komunitatearentzako zerbitzua— kontzeptu honek guretzat? Honetaz arduratuko gara ondoren.

Zintzoki aitortzeko, kooperatibistei nik ez ahal eta ez nahi nieke besterik ezer esan, beraiei ikasia diedana ez bada. Ezer berririk ez, beraz, komunitatearen kontzeptu oinarrizko horren meditazio txiki bat baino. Printzipio horren garrantzia gogoratzera soil-soil mugatuko naiz, zehazkiago. Komunitatea, noski, ez da derrigor lan-komunitatea edo fabrika bakarrik: herria ere bai, edo bailara, nazioa, eta nahi baduzue gurekin bategiten duen gizadi osoa da komunitatea.

Komunitatea asko aipatzeak ba omen du arrisku bat, eta hortixe has gaitezke.

a) Egungo gizartean, izan ere, langabezia eta, buruhauste larriak egon arren, jende eta batez ere gazte askorentzat oso komodoa bilakatu da, norbera bere buruaren, lanaren, etorkizunaren erantzule ekinkor ibili ordez, ardura dena komunitatearen edo Estatuaren gainera botatzea eta irtenbideak handik noiz etorriko egonean egotea. Horregatik kooperatibista batzuk, eta berdin ez kooperatibistak, alergikoak bezala bihurtu dira gure artean komunitatearen aipuarentzat: orain, esaten dizute, indibiduoaren eginbeharra

labor del individuo, es decir, la responsabilidad de cada sujeto, lo que hay que impulsar. Mientras esperemos que las soluciones vengan de la providencia del Padre Estado, no habrá salida. El esfuerzo ha de provenir de cada uno.

b) O bajo el encuadre de la historia del cooperativismo, a menudo se escuchan las siguientes afirmaciones: al principio sí, todos los cooperativistas se preocupaban de los problemas y vicisitudes de la empresa; en las reuniones y charlas exponían sus preocupaciones con el más intenso de los intereses; intervenían muy activamente en las discusiones y decisiones. Si embargo ¿ahora? Cada uno realiza su trabajo, cobra su sueldo y se marcha a su casa; le es indiferente el funcionamiento de la fábrica y los problemas que pueda tener, eso lo deja para los responsables de arriba; a él le da exactamente igual mientras cobre a fin de mes.

Ambos casos no son muy diferentes entre sí, y los dos reflejan el individualismo y la debilidad que el bienestar económico ha traído consigo; en ningún caso demuestran que se haya convertido en problemático el reivindicar la prioridad de la comunidad. Puesto que es la primacía del individuo la que vemos reivindicada en esas actitudes, y bajo su sombra la comunidad (no el sujeto al servicio de la comunidad y creciendo dentro de ella). Pero, ni siquiera eso: ya que en realidad, en el sentido más enérgico del liberalismo, dicho individuo no es tal, aquel que lleva fuertemente impresa en su conciencia su propia responsabilidad, aquel que construye su propia libertad, que forja su futuro, que lucha. Lo que advertimos en ese seudo-individuo es, precisamente, el sujeto despersonalizado del consumo generado finalmente por la sociedad del bienestar, no el individuo intrépido del liberalismo clásico inicial, que sabía imponerse en las olas del "laissez faire". A ese sujeto que ha extraviado precisamente su individualidad lo denominan "posmoderno" para expresar que el sentido de

da azpimarratu beharra dagoena, norbakoitzaren erantzukizuna. Soluzioak Aita Estatuaren probidentziatik itxaroten ditugun artean irtenbiderik ez dago. Bakoitzak ahalegindu behar du.

b) Edo kooperatibismoaren historiatik begira, maiz entzuten dira holakoak: hasieran bai, kooperatibista guztiak ziren axolduriak, lantegiko arazo eta gorabeherak nola zebiltzan; batzarretan eta solasetan interes handienaz adierazten zituzten beren kezkak; bizi-bizi partehartzen zuten eztabaidetan eta erabakietan. Baina, orain? Bakoitzak bere lana egiten du, eta soldata kobratu eta etxera doa, hor konpon lantegia nola doan eta zer problema dauden, hori goiko arduradunentzat uzten du; berari bost axola, hilaren buruan kobratzen duen artean.

Bi kasuak ez dira oso ezberdinak, eta biek erakusten dutena, ongizate ekonomikoarekin erruz zabaldu den indibidualismoa eta ahultasuna da, inola ere ez komunitatearen lehentasuna errebindikatzea problematikoa bihurtu denik. Jarrera horietan indibiduoaren lehentasuna baita, errebindikatuta ikusten duguna, eta haren morrontzan komunitatea (ez norbera komunitatearen zerbitzuan eta komunitatearen barruan gauzatzen). Baina, gero, ezta hori ere: indibiduo hori egiaz indibiduorik ez baita, liberalismoaren zentzu bortitzean, kontzientzian bere erantzukizun propioa indartsu txertaturik dakarrena, bere askatasunaren eraikilea, etorkizunaren urratzailea, borrokaria. Indibiduo-itxura horretan ikusten duguna, ongizate gizarteak azkenean ekoiztu duen kontsumoaren subjektu despertsonalizatua da hain zuzen, ez hasieretako liberalismo klasikoaren indibiduo zainarta, "laissez faire"aren uhinetan gailentzen zekiena. Hain zuzen bere indibiduo izatea galdu egin duen subjektu horri, "posmodernoa" deitu ohi diote orain, bere responsabilitatearen, balio moral eta sozialen, obligazioen zentzua iraungia duela, adierazteko. Beraz, komunitatearen lehentasunarentzat hori ez da objekzioa. Alderantziz,

su responsabilidad, sus valores morales y sociales y sus obligaciones ha caducado en él. Así pues, para la prioridad de la comunidad eso no es objeción. Por el contrario, para nosotros es importantísimo comprender que, con el transcurso de la historia, partiendo de aquel individualismo hemos llegado al pusilánime individuo impersonal. Dicho individuo —el "egoísta" liberal— ha sido siempre descuidado con respecto a la comunidad; y si ahora se ha congraciado con la misma, lo ha hecho con el exclusivo fin de cobrar de ella.

Dentro de los esquemas que hemos heredado de la historia para la interpretación de los problemas, existen numerosos planteamientos que a priori son dicotómicos: derecha/izquierda, privado/público, etc. En mi opinión, podríamos contar con un concepto ciertamente útil de la comunidad con el fin de librarnos de esas dicotomías de la filosofía social. Por ejemplo, los cooperativistas intentáis en estos momentos crear una Universidad. En Euskal Herria ya teníamos Universidades privadas ciertamente famosas y, recientemente, se han sumado a ellas también Universidades públicas. A decir verdad, con el modo de constitución de la Universidad pública y su estructura —si he de ser sincero debo confesar que yo vivo de ella—, no será ninguna barbaridad si digo que, así dentro como fuera, la gente tiene muchas dudas tanto sobre el modelo académico elemental de la Universidad como de sus posibilidades para actuar convenientemente en la conformación eficaz del pueblo vasco en el significado más pleno. No es un secreto que nuevamente mucha gente ha puesto sus ojos en Arrasate, y que existe un gran interés por conocer la estructura que se le dará a la Universidad cooperativa. Pero, al igual que ocurrió con las ikastolas, se planteará ahora el problema con la Universidad: ¿es privada o pública? Y forzosamente se pretenderá integrar el proyecto en esa falsa alternativa. Puesto que, en este país, los domingos todos nos volvemos

guretzat oso garrantzizkoa da ulertzea, historiak ibili duen bidean, indibidualismotik hasi behiala eta heldu garela orain indibiduo norgabetu txepel horretara. Indibiduo hori —"egoista" liberala— beti izan da komunitatearekiko axolagabea; eta orain komunitatearen adiskidea bada, handik kobratzeko bakarrik da.

Gure arazoak interpretatzeko historiatik heredatu ditugun eskemen artean planteamolde pila bat dago aldeaurrez dikotomikoa: eskuin/ezker, pribatu/publiko, etab. Nik uste dut, komunitatearen kontzeptua txit baliagarria izan genezakeela filosofia sozialean dikotomia horietatik libratzeko. Adibidez, kooperatibistak oraintxe Unibertsitatea sortzeko asmotan zabiltzate. Euskal Herrian lehendik badauzkagu Unibertsitate pribatu sonatu askoak eta, orain berriki, Unibertsitate publikoak ere. Egia esan, Unibertsitate publikoa eratu den moduarekin eta daukan egiturarekin —dena aitortzeko, neu hortik bizi naizela aitortu beharra daukat— ez dut larregikeriarik esango, zalantza asko daukala honez gero jendeak esaten badut haren barruan nahiz kanpoan, bai Unibertsitatearen eredu akademiko soilari buruz eta bai euskal herrigintza efikaz batean esanahirik beteenean behar bezala eragiteko haren posibilitateei buruz. Ez da sekretu bat, begi asko jarri dela berriro Arrasatera begira, eta interesik handiena dagoela, Unibertsitate kooperatiboak zein antolaera aurkituko duen ikusteko. Baina lehen ikastolekin bezala orain Unibertsitatearekin sortuko da arazoa: pribatua ala publikoa da hori? Eta derrigor alternatiba faltsu horretan sartzera behartu nahiko da proiektua. Izan ere, herri honetan, igandean denok demokratak jartzen gara eta, eskuzabalki aitortzen dugu gauzak ez direla izaten zuriak ala beltzak, errealitatea ez dela bikoitz sinplea izaten, etab. Bakarrik, gero, errealitatea beti manikeoa gertatzen da gure eskuetan; eta inon ez da "hirugarren formularik" onartzen, hori ere demokraziaren izenean hain zuzen. Ikusiko dugu, nolako trebetasuna erakus-

demócratas y generosamente reconocemos que las cosas no suelen ser blancas o negras, que la realidad no suele ser doble o simple, etc. Sólo que, después, la realidad suele resultar siempre maniquea en nuestras manos, y en ninguna parte se acepta una "tercera fórmula", y todo ello, cómo no, en nombre de la democracia. Ya veremos qué habilidad demostráis en la instauración de *un modelo propio*.

Lo que encuentro importante es no copiar, es decir, encontrar un modelo propio y acertar. Recuerdo que el sueño de la Universidad cooperativa ya lo tuvo Arizmendiarrieta, según se desprende de sus papeles: y en mi opinión — no entraré en cómo se podrá o deberá organizar esa filosofía en la praxis— no existe ninguna duda de que, en sus sueños, esa Universidad, tal y como se entienden actualmente los términos de privado y público, no sería ni privada ni pública, sino una Universidad comunitaria.

ten duzuen eredu propio bat egokitzen. Inportantea iruditzen zaidana, ez kopiatzea da; eredu propioa bilatzea eta asmatzea. Gogoratzen naiz Unibertsitate kooperatiboaren ametsa Arizmendiarrietak eduki zuela jada, haren paperetan ageri denez: eta niretzat —ez naiz sartuko, filosofia hori gero praxian nola mamitu ahal edo beharko den— ez dago zalantzarik, haren ametsean Unibertsitate horrek, pribatua eta publikoa gaur ulertzen diren gisan, ez pribatua eta ez publikoa izan behar zuela, baizik Unibertsitate komunitaria.



El caso del cooperativismo no es diferente en ese punto según lo entendía Don José María. Cuando se habla del cooperativismo de Arrasate, a menudo surge la interrogante: ¿por qué y cómo cobró forma ese fenómeno precisamente en Arrasate? Y entonces los investigadores presentan una serie de respuestas, sobre todo los extranjeros, acerca de lo correcta, trabajadora, abierta que es la gente de Arrasate; de que, tal y como se puede observar en el chiquiteo y en la calle, existe solidaridad incluso entre las diferentes clases sociales, etc. Luego, claro, al crítico perspicaz le resulta facilísimo aducir que el alegar costumbres tan insignificantes como el chiquiteo para explicar ese notable acontecimiento que es el movimiento cooperativista no es realmente nada científico. No. O ¿sí? Al menos si sabemos darnos cuenta de que debajo de él hay un tipo de comunidad. Don José María, tanto cuando se refería en general a las condiciones previas a la creación del cooperativismo, como cuando ha expuesto concretamente la historia de la experiencia de Arrasate, siempre remarcaba —y con ello nos comenzamos a acercarnos al tema de la exportabilidad— que el cooperativismo sólo es posible como fruto de un tipo concreto de comunidad.

a) Para que el cooperativismo sea factible, en primer lugar, es imprescindible que una comunidad se sienta como tal: es decir, todos los miembros deben profesarse total confianza, deben sentirse solidarios entre sí, han de asumir su labor con total responsabilidad y han de conformar una verdadera asociación, en la que entre todos reine la amistad y el apoyo mutuos. “El cooperativismo bien entendido es una convocatoria para una acción promotora, que a su vez deberá llevarse a cabo con la servidumbre a los valores morales y, por consiguiente, en el marco de los imperativos impuestos por la libertad, la justicia social y la solidaridad, democráticamente dosificados y regulados. Huelga decir que, mientras una comunidad no esté sensibilizada

Arrunt kooperatibismoaren kasua bera ez da bestelakoa puntu horretan, Don Jose Mariak ulertu duenez. Arrasateko kooperatibismoaz hitzegiten denean, maiz galdetzen da, zergatik eta nola fenomeno hori hain zuzen Arrasaten agitu den. Eta orduan ikertzaileek esplikazioak aurkezten dituzte, batez ere atzerritarrek, Arrasateko jendea nola den jatorra, langilea, irekia; eta nola hemen hein bateko berdintasuna eta elkartasuna dagoen klase sozial diferenteen artean ere, txikiteoan eta kalean ikus daitekeen moduan, etab. Jakina, gero kritiko zorrotzarentzat oso erraza da eragoztea, mugimendu kooperatiboa den gertakari itzela esplikatzeko, txikiteoa bezalako ohitura hutsalak alegatzea ez dela benetan arrazoi zientifikoa. Ez. Ala bai? Horren azpi-azpian dagoena komunitate tipo bat dela antzematen baldin badakigu behintzat. Don Jose Mariak beti-beti azpimarratu du —eta, honekin, esportagarritasunaren gaiari hurbiltzen hasi gara— bai kooperatibismoa sortzeko aurrebaldintzei buruz orohar mintzatu denean, bai Arrasateko esperientziaren historia konkretuki azaldu izan duenean, komunitate molde jakin baten emaitza gisa bakarrik dela kooperatibismoa posible.

a) Kooperatibismoa egingarria izateko, komunitate batek aurrena bere burua komunitate bezala sentitu behar du: hau da, kide guztiek bata-bestearen konfidantza osoa eduki, elkarren solidari sentitu, erantzukizun osoarekin hartu bakoitzak bere eginkizuna, egiazko lagunartea izan, guztiak guztien lagun eta laguntzaile. "El cooperativismo bien entendido es una convocatoria para una acción promotora, que a su vez deberá llevarse a cabo con la servidumbre a los valores morales y, por consiguiente, en el marco de los imperativos impuestos por la libertad, la justicia social y la solidaridad, democráticamente dosificados y regulados. Huelga decir que, mientras una comunidad no esté sensibilizada con estos valores morales o humanos, el cooperativismo no puede merecer mayor atención..." (FC, II,

con estos valores morales o humanos, el cooperativismo no puede merecer mayor atención..." (FC, II, 189). Por consiguiente, el cooperativismo es posible —es "exportable"— en tanto en cuanto exista una comunidad en la que imperen dichos valores; es decir, esa comunidad puede crear ella misma y de sí misma (no se trata de exportación, sino de creación) el cooperativismo más adecuado para ella. En cambio, en vano se tratará de exportar fórmulas de estructuración cooperativa a cualquier sitio que carezca de esa comunidad concienciada.

b) Así mismo, en sus intervenciones sobre la experiencia cooperativa de Arrasate, Arizmendiarrieta nos recuerda incesantemente que dicha experiencia fue obra de un grupo de jóvenes con un gran sentido comunitario, cuyos talentos personales, formación profesional, horas y trabajo, deseos, proyecto empresarial, todo, pusieron al servicio de un objetivo comunitario, y no al suyo personal privado. Empero, esos protagonistas se enmarcan dentro de una historia espiritual integrada por el valor de la persona y el trabajo, la solidaridad y los conceptos éticos. En la historia de Euskal Herria se han citado infinidad de veces las tradiciones del trabajo vecinal, etc. en los pueblos y caseríos. Según la propia opinión de Arizmendiarrieta, en definitiva, lo que llamamos experiencia cooperativa de Arrasate no ha sido consecuencia más que de ajustar esas prácticas comunales de trabajo en colaboración y el espíritu comunitario de la tradición vasca a las nuevas necesidades. En suma, anterior al cooperativismo, tanto en general como en concreto, existe un espíritu: el espíritu comunitario. Fruto de ese espíritu nacerá el cooperativismo. Y precisamente lo que el cooperativismo pretende no es sino crear una comunidad en el ámbito del trabajo y la producción. (Crear a partir de la comunidad y crear la comunidad, de la misma manera que los árboles y las ramas van sucesivamente creándose unas a otras). Recordemos que lo que precedió al coo-

189). Beraz, balio horiek bizi dituen komunitate bat dagoen tokian, kooperatibismoa posible da —"esportagarria" da—; hau da, komunitate horrek berak sor dezake bere modu egokieneko kooperatibismoa bere baitatik (ez dago esportaziorik, kreazioa baino!). Alderantziz, komunitate kontzientziatu hori falta den tokira, alfer-alferrik izango da antolaketa formula kooperatiboak esportatu gura izatea.

b) Arrasateko esperientzia kooperatiboari buruz ihardun izan denean orobat, Arizmendiarrietak etengabe gogoratzen du, zentzu komunitari handiko gazte talde baten obra izan dela hori: beren dohain pertsonalak, formazio profesionala, orduak eta lana, gogoa, enpresa proiektua, dena, helburu komunitari baten zerbitzuan, eta ez beren pertsonal pribatuan, ezarri dutenak. Protagonista horiek berak, ordea, pertsonaren eta lanaren balioaren, solidaritzaren, kontzeptu etikoen historia izpiritual batean kokatzen dira. Egungo kooperatibismo industrialaren aurretiazkoak legez euskal historian, askotan aipatu dira auzo-lan tradizioak, etab., herri eta baserrietan. Arizmendiarrietak berak irizten zionez, elkarlaneko herri ohitura horiek eta euskal tradizioko izpiritu komunitaria premia berrietara egokitzea baizik ez da izan, funtsean, esperientzia kooperatibo arrasatearra ohi deritzoguna. Beraz, kooperatibismoaren aurretik, orohar nahiz modu konkretuan, izpiritu bat dago: izpiritu komunitaria. Izpiritu horren emaitza da kooperatibismoa gero. Eta kooperatibismoak nahi duena ez da besterik, komunitatea sortzea baino lanaren eta produkzioaren eremuan. (Komunitatetik sortu eta komunitatea sortu, zuhaitzak eta adarrek bata-bestea egiten duten antzera). Gogora dezagun kooperatibismoaren hasiera-hasieran egon dena ez dela izan zehatz-mehatz molde kooperatiboko enpresaren ideia, "lan komunitatearen" asmoa baizik, azkenean enpresa kooperatiboaren formula hautatuko duena. 1955 aldera planteatu du jada Arizmendiarrietak bere helburua honelaxe,

peratívismo no era exactamente la idea de empresa con molde cooperativo, sino el objetivo de "una comunidad de trabajo", la cual finalmente se decantará por la fórmula de empresa con molde cooperativo. Ya para los alrededores de 1955, antes de la creación de Ulgor, Arizmendiarrieta planteaba claramente su objetivo de la siguiente manera : "¿No habrá llegado la hora de proclamar rotundamente que la empresa no tiene que ser una multitud, sino una Comunidad?" (FC, I, 13).

Concretemos más y centrémonos en la actualidad. (Las personas que tratamos los problemas desde el perfil de los principios y los conceptos, solemos correr el riesgo de deambular siempre a través de las filosofías abstractas. A mí, por mi parte, no me cuesta en absoluto reconocer que a la hora de dar solución a problemas concretos ni aun todas las filosofías suelen ser suficientes, se necesita algo más; los principios, por su parte, tampoco están enteramente de sobra). Ahora, por ejemplo, existe la polémica de si los sindicatos deberían entrar o no en las cooperativas con el fin de abogar por los intereses de los trabajadores. Y, en realidad, no se puede decir que las razones que se dan a su favor sean inaceptables. O bien se deben haber enfriado el espíritu inicial y aquel "orgullo del creador", o bien los cooperativistas más jóvenes ni siquiera los han conocido. Según han ido creciendo las empresas, la toma de decisiones se ha alejado del trabajador neto a los cargos técnicos superiores; seguramente, incluso el interés de los propios trabajadores ha menguado en lo referente a aquellos debates que para nada sirven en el futuro. (Según escribe alguien, hoy, una cosa es la cooperativa conformada por tres o cuatro miembros, pero en aquellos cuyos miembros superan los 150 trabajadores, "cualquier parecido entre la teoría y la realidad es pura casualidad"). Especialmente con las nuevas prácticas generadas por la evolución y la reestructuración de los últimos años (Mondragón Corporación

Ulgor sortu baino lehen hortaz, oso garbi: "¿No habrá llegado la hora de proclamar rotundamente que la empresa no tiene que ser una multitud, sino una Comunidad?" (FC, I, 13).

Piska bat konkretua izateko gaurko egunera etorriz. (Arazoei printzipioen eta kontzeptuen aldetik heldu ohi diegunok, beti filosofia abstraktuetan ibiltzeko arriskua izaten dugu. Nik behintzat nekerik ez dut aitortzeko, buruhauste konkretuen soluzioak asmatzeko orduan filosofia guztiak ez direla nahikoa izaten, beste zerbait behar izaten da hor: printzipioak ere, ordea, ez dira egoten guztiz sobera). Adibidez, orain eztabaidatxoa dabil, lantegi kooperatiboetan sindikatuak sartu ala ez sartu, langileen interesak hobeto aldezteko. Eta sindikatuen alde ematen diren arrazoiak, ezin esan daiteke berez arrazoi txarrak direnik. Hasierako izpiritua eta "sortzailearen harrotasun" hura hoztu egin bide dira, edo kooperatibista gazteagoek ezagutu ere ez dituzte egin. Enpresak handitu ahala, erabakimena langile xumeetatik goi kargu teknikoetara urrundu egin da, beharbada langileen beren interesa ere gutxitu egin da gero ezertarako balio ez duten eztabaidetan. (Norbaitek idatzi duenez, gaur gauza bat da hiruzpalau lagunek osatzen duten kooperatiba, baina 150 langiletik gorakoetan "teoriaren eta errealitatearen arteko edozein antzekotasun kasualitate hutsa da"). Azken urteotako eboluzioak eta birregituraketak (Mondragón Corporación Cooperativa) ekarri dituen praktika berriekin batez ere, fundatzailearen izpiritua osoki baztertu dela, salatu izan da. "El uso de la contratación eventual no justificada, el alejamiento de los niveles de decisión respecto al socio cooperativista, la cada vez mayor formalización de los órganos de representación y la aplicación de sistemas de flexibilidad laboral", etab., etab., aipatzen dira problemak, benetan problema serioak. "No es extraño, por tanto —ateratzen da konklusioa—, que en este momento empiece a plantearse con cierta fuerza la necesidad del sindicato también en este tipo

Cooperativa), se ha denunciado la total relegación de espíritu del fundador. " El uso de la contratación eventual no justificada, el alejamiento de los niveles de decisión respecto al socio cooperativista, la cada vez mayor formalización de los órganos de representación y la aplicación de sistemas de flexibilidad laboral", etc., etc., son los problemas, realmente serios, que se detallan. "No es extraño, por tanto —se concluye— que en este momento empiece a plantearse con cierta fuerza la necesidad del sindicato también en este tipo de empresas" (Landeia 34, junio-julio 95, 4-5). Con todo ello solamente pretendíamos citar un problema, por lo que lo dejaremos ahí

de empresas" (Landeia 34, junio-julio 95, 4-5). Guzti honekin orain ez genuen problema bat aipatu besterik egin nahi eta, beraz, hori hor utziko dugu.



En estos momentos la pregunta que se plantea es la siguiente: supongamos que todos esos inconvenientes mencionados sean ciertos; y, como hipótesis que por el momento no nos obliga a nada, supongamos igualmente que algún día, puede que dentro de otros muchos años, haya que organizar sindicatos dentro de las empresas cooperativas, ya que a fin de cuentas es lo que acaba pareciendo lo más adecuado. Yo no voy a entrar en ello, no soy profeta. Además, hoy no pretendíamos vagar en profecías, sino realizar una pequeña reflexión; quedémonos, pues, en ella. En definitiva, la cuestión es la siguiente: aun admitiendo que dichos problemas existen en las cooperativas, ¿será verdad que debemos comenzar desde los sindicatos a buscar la solución? Ciertamente, aut, aut, somos inclinados a soluciones limpias y fáciles. Pero, si lógicamente la solución a los problemas de las cooperativas hay que buscarla antes que nada dentro de la propia filosofía cooperativa, nuestra pregunta será: ¿de dónde deberá empezar a buscar la solución aquí y ahora un cooperativista honrado? ¿por qué principios y qué espíritu? Ante estos problemas, desde la óptica de un sindicalista, tal vez sea lógico alegar enseguida la necesidad de los sindicatos; desde la perspectiva del cooperativista, sin embargo, eso supondría un desastre y el fracaso de cualquier tipo de intento. ¿Por qué? Porque se rechaza el principio de comunidad fundamental en la idea de cooperativismo. Si existen problemas, debemos comenzar a buscar las soluciones dentro de nuestros principios y de nuestro pensamiento. Así pues, si en numerosas cooperativas la comunidad laboral no funciona como es debido, habrá que buscar las causas y poner en marcha la iniciativa y la imaginación para la búsqueda del remedio: agilizar el espíritu de comunidad, si fuera necesario rehacer la estructura comunitaria (por ejemplo en grupos reducidos), descubrir nuevos mecanismos para facilitar la comunicación y la toma de decisiones. En cambio, buscar la  problemas de casa en otros espacios,

Orain galdera zerau da: eman dezagun, aipatu diren oker guztiok egiazkoak direla; eta, oraingoz ezertara obligatzen ez gaituen hipotesi batean, eman dezagun noizpait, beharbada beste urte askoren buruan, enpresa kooperatiboetan sindikatuak antolatu beharra egonen dela, egokiena horrexek dirudielako azken finean. Ni ez naiz sartuko horretan, ez naiz profeta. Halere gaur ez genuen profeziak egiten ihardun nahi, meditazio apur batean baizik: gera gaitezen bada meditazio horretan. Orduan kontua hauxe da: kooperatibetan problema horiek denak zinez badaudela onarturik ere, egia ote da sindikatuetatik hasi behar dugula soluzioa bilatzen? Berehalaxe jotzen baitugu, zirt ala zart, soluzio garbi eta errazetara. Baina logikoki kooperatibetako problemen soluzioa aurren-aurrenik filosofia kooperatiboaren barruan bilatu behar baldin bada, gure galdera izango da, kooperatibista zintzo batek nondik hasi behar duen, orain eta hemen, soluzioaren bila, zeintzu printzipioetatik eta izpirituarekin. Problema horien aurrean, sindikalista baten ikuspegitik beharbada logikoa izan baititeke segituan sindikatuen beharra alegatzea; kooperatibistaren ikuspegitik horrek desastre bat adieraziko luke eta bestelako saio guztien porrota bakarrik. Zergatik? Kooperatibismoaren ideian oinarri-oinarrizkoa den komunitatearen printzipioa bazter uzten delako. Problemak baldin badaude, bada (ik. Argia  1996. 11. 17), geure printzipioen eta pentsamenduaren barruan hasi behar dugu soluzioak bilatzen. Beraz, kooperatiba askotan lan-komunitateak behar bezala funtzionatzen ez badu, kausak ikusi beharko dira, eta erremedioa aurkitzeko ekimena eta irudimena martxan jarri: komunitate izpiritua bizkortu, beharbada komunitatearen egitura birmoldatu, talde txikitan edo; mekanismo berriak asmatu guztien komunikazio eta erabakibiderako. Ordea etxean problemak daudela eta, beste espazio batera jauzi eginez horiek konpondu nahi izatea, etxea abandonatzea besterik ez da, konpondu ordez. (Tentazio hori beti handia izaten da, presa gehiegi duen jendean).

no es más que abandonar el propio hogar y no solucionar nada. (Esa tentación siempre ha sido grande en la gente con demasiada prisa). Sin ánimo de entrar ahora directamente en esa discusión, ya que para ahondar en el problema deberíamos considerar además otros muchos factores empíricos, quisiera subrayar que si queremos buscar soluciones a los problemas, debemos buscarlas dentro de nuestra lógica, es decir, con arreglo a nuestros propios criterios y principios. Pero, ¿cuáles son dichos principios? ¿Son conscientes los cooperativistas de la originalidad de su proyecto y de por qué su proyecto no tiene ninguna relación con el proyecto sindical que en otro contexto sería totalmente aceptable? Porque uno es el género de filosofía que nos lleva a los planteamientos sindicalistas; y otra muy distinta la filosofía de la cooperación. Los principios de uno de los ámbitos no sirve en el otro, y al revés, aun cuando ambos sean proyectos destinados a la emancipación del trabajador. Son dos espacios, dos filosofías, dos planteamientos. Cada uno encierra sus propios principios y su propia lógica.

Con todo, nos resulta imprescindible, tal y como lo decíamos anteriormente, volver a las raíces de los movimientos sociales modernos, y según parece nos hallamos ya en un nuevo espacio de dicha necesidad universal. En esas raíces el sindicalismo y el cooperativismo son de una misma familia. Veámoslo.

Eztabaida horretan zuzenki sartzeko asmorik gabe orain, beste anitz faktore enpiriko ere aintzat hartu beharko baitgenuke arazoa bere osoan sakontzeko, nik azpimarratu nahi nukeena da, problemei soluzioak bilatzekotan, gure logikaren barruan bilatu behar ditugula soluzioak, h. d., gure irizpide eta printzipioen arabera. Baina zeintzu dira printzipio horiek? Konsziente al dira kooperatibistak beren proiektuaren originaltasunaz, eta zergatik beren proiektuak zerikusirik ez duen, bestela guztiz zilegizkoa den proiektu sindikalarekin? Izan ere, filosofia suerte bat da, planteamendu sindikalistetara daramana; eta beste bat, kooperazioaren filosofia. Alor bateko printzipioek ez dute bestean balio eta alderantziz berdin, bi-biak langilearen emanzipazio proiektuak izan arren. Bi esparru dira, bi filosofia, bi planteamendu. Bakoitzak bere printzipioak eta bere logika dauka.

Honekin, mugimendu sozial modernoen sustraietara itzuli beharra daukagula, esan baitugu goian, premia unibertsal horren eremu berri batean sartuta gabiltza jada nolabait. Sustrai horietan bai, sindikalismoa eta kooperatibismoa senideak dira. Ikus dezagun hori.

Está de moda decir que la modernidad se halla en crisis: por lo visto ahora nos encontramos en la posmodernidad. Pero no es sólo cuestión de moda. Aquellos que fuisteis oyentes de Don José María le escuchasteis infinidad de veces mencionar la crisis de la modernidad y analizarla junto con Maritain, Mounier y sus grandes maestros personalistas: El hombre orgulloso y moderno que floreció en el Renacimiento —recordaban—, creador y dios de su propio ser, convencido de que, mediante la ciencia y el progreso, sería él el que dispondría en la tierra el cielo, en el siglo XX se ha precipitado en su propia atroz destrucción y en el holocausto. Los Personalistas —por lo tanto, entre nosotros, Carlos Santamaría, Zubiri, Arizmendiarrieta— hace ya mucho tiempo que se percataron de la crisis del razonamiento liberal (cfr. El hombre cooperativo, 1984, 46 y sig., 91 y sig.). Cuando entonces los personalistas se referían a la crisis de la modernidad, los "progres" del momento se reían; y los que, cincuenta años más tarde, han descubierto ahora la crisis son otra vez ellos los "progres"... Sí, ¡cómo han cambiado los tiempos en muy poco tiempo!.

Con todo, diría que muchas veces solemos mezclar conceptos y sentimientos (tal y como ocurre a mi entender con el asunto de los sindicatos). Según parece, algunos aspectos de la modernidad, especialmente las libertades personales, aquí sólo se han podido gozar plenamente tras la muerte de Franco. En la "democracia". Algunos, en defensa de esa democracia (puesto que, según parece, todos los nacionalismos y "colectivismos" son ¡antidemocráticos!), de repente se han convertido en fervientes abogados del individuo puro, apóstoles del espíritu liberal, de nuevo con dos siglos de retraso. Entonces, si la modernidad está en crisis ¿qué es lo que está en crisis? Ya que la modernidad, que en la actualidad se halla presuntamente en crisis, ha sido construida sobre esos mismos principios de liberalismo e individualidad. Cabe decir,

Modan dago, modernitatea krisian dagoela esatea: posmodernitatean omen gaude orain. Baina ez da moda bakarrik. Don Jose Mariaren entzuleak izan zinetenok, mila aldiz entzun diozue orain baino lehen modernitatearen krisia aipatzen eta krisiaren analisia egiten Maritain, Mounier eta bere maisu pertsonalista handiekin batera: Ernazimentuan goititu gizaki harro modernoa —gogoratzen zuten haiek—, bere buruaren kreatzailea eta jainkoa, zientziarekin eta progresoarekin zerua berak atonduko zuela uste zuena, XX. mendean bere hondamendi ikaragarrian eta holokaustoan amildu da. Pertsonalistek —beraz, gure artean, Karlos Santamariak, Zubirik, Arizmendiarrietak— aspaldi ohartu zuten arrazoimen liberalaren krisia (cfr. El hombre cooperativo, 1984, 46 eta hurr., 91 eta hurr.). Bakarrik, pertsonalistek orduan modernitatearen krisia aipatzen zutenean, irri egiten zuten orduko "progreek"; eta modernitatearen krisia orain berrogeita hamar urte geroago deskubritu dutenak, "progreak" orain berak dira berriro... Bai, nola aldatu diren denborak, denbora gutxian!

Edonola ere, guk askotan kontzeptuak eta sentimentuak nahastu egiten ditugula, esango nuke (sindikatuen arazo horretan ere nire ustez gertatzen den bezala). Dirudienez, modernitatearen aspektu batzuk, askatasun pertsonalak bereziki, Franco hil eta gero bakarrik gozatu ahal izan ditu hemen jendeak behar bezala. "Demokrazian". Batzuk, bada, demokrazia horren defentsan edo (nazionalismo edo "kolektibismo" guztiak antidemokratikoak ei baitira!), indibiduo puruaren abokatu sutsuak bilakatu zaizkigu bapatean, izpiritu liberalaren apostoluak eta misiolariak, berriro mende pare bateko atzerapenarekin. Izan ere, zer da, modernitatea krisian badago, krisian dagoena? Liberalismoaren eta indibidualismoaren printzipio horietxen gainean izan baita eraikia modernitatea, orain krisian omen dagoena. Zer esan, hortaz? Euskaldunon historian oso jatorrrra da

pues, que en la historia de Euskal Herria es muy nuestra esta defensa anacrónica de hermosos "tiempos pasados": los sentimientos actuales y las ideas de antaño.

No hay por qué volver a discutir este tema de nuevo: bien o mal, hace tiempo —durante el siglo XIX— que ese debate ya ha sido suficientemente tratado y, desde su propia creación, el cooperativismo además de fuera se halla en contra de esa línea del "individualismo posesivo". No es necesario volver a recordar los primeros pasos del cooperativismo como movimiento para hacer frente a la atrocidad capitalista, individualista. Desde su origen el cooperativismo posee su línea, su tradición en la historia del pensamiento y los movimientos sociales: precisamente contra la revolución burguesa, pero en una tradición crítica que, con el objeto de radicalizar la revolución y profundizar en ella (¡no negarla!), ha denunciado su "principio atómico", su libertad abstracta, etc.; y, sobre todo, en un movimiento que pretende vencer realmente mediante su lucha a la aporía política del liberalismo —en este sistema la libertad del individuo acaba indefectiblemente por oprimirlo—. Esto, dicho así, también lo persiguen el socialismo, el comunismo, el anarquismo y los movimientos sindicales. El cooperativismo pertenece a la tradición crítico-social que todos ellos conforman. Esta tradición es comunitaria, en ningún caso individualista. Y, en segundo lugar, esta tradición en su origen jamás ha sido estatalista, sino minimalista (pero no a favor del individuo, volvemos a reiterar, sino a favor de la comunidad): el menor Estado posible con la sociedad (comunidad) mayor posible. La tendencia que actualmente se observa de fortalecer al Estado sobre la sociedad y conferirle funciones judiciales ha sido consecuencia de una evolución posterior o perversión del socialismo. Sin embargo, cuando veo en los últimos tiempos a ciertos socialistas "modernos" cantar apologías sobre la individualidad, no sé si hay que considerarlo

"iragan denboren" ederra defendatze anakroniko hau: gaurko sentimentuak eta atzoko ideiak.

Ez daukagu hori zertan berriro eztabaidatu: ondo ala gaizki, baina eztabaida hori egin askoa dago aspaldi —XIX. mendean—, eta, handik hara, kooperatibismoa "indibidualismo posesiboaren" ildo horretatik kanpo ezezik kontra dago bere sorreratik bertatik. Ez daukagu orain berriro gogoratu beharrik ere kooperatibismoa nola sortu zen, basakeria kapitalista, indibidualista horrixe aurre egiteko mugimendu gisa. Kooperatibismoak pentsamenduaren eta mugimendu sozialen historian bere ildoa dauka, bere tradizioa: hain zuzen, iraultza burgesaren aurka, baina iraultza erradikalizatu eta sakondu asmoz (ez ukatu!), haren "atomoen printzipioa", askatasun abstraktua, etab., salatu dituen tradizio kritikoan; eta batez ere liberalismoaren aporia politikoa —indibiduoaren askatasunak indibiduoa zapaltzen bukatzen duela nahitaez sistema horretan— bere borrokarekin errealki gainditu nahi duen mugimenduan. Hori, horrela esanda, sozialismoak, komunismoak, anarkismoak eta mugimendu sindikalak ere hala nahi dute. Guztiok osatzen duten tradizio kritiko sozialean barneratzen da kooperatibismoa. Tradizio hori komunitaria da, ez da indibidualista. Eta, bigarren, tradizio hori bere jatorrian ez da izan estatalista, Estatu-minimalista baizik (baina ez indibiduoaren alde, berriro esan, komunitatearen alde baizik): ahalik Estatu gutxiena, ahalik gizarte (komunitate) gehienaz. Sozialismoaren geroagoko eboluzio bat edo perbertsio bat izan baita, gizartearen gainetik Estatua indartzeko eta Estatuari epaile funtzioak eransteko orain ikusten dugun joera. Azken aldian sozialista "moderno" batzuk (eta are marxista ohiak!) indibidualismoaren apologia kantatzen ageri zaizkigularik, ostera, ez dakit hori perbertsio intelektualtzat hartu behar den, ala nor non dagoen gure ez jakitearen seinale soil-soiltzat, berriro kontzeptu denak nahastuz. Zilegi bada berriro Marx aipatzea, krisiak krisi, ez dauzka-

como perversión o, volviendo a mezclar todos los conceptos, como mera señal de la falta de interés por conocer el lugar que ocupa cada cual. Si es permitido volver a citar a Marx, diría que no tenemos por qué olvidar sus agudas críticas a la libertad inherente a "la separación del individuo del individuo", al burgués "sujeto egoísta autosuficiente", "al individuo encerrado en sí mismo", "a la libertad de la mónada separada y encerrada en sí". De hecho, históricamente el socialismo solamente tiene sentido como reacción contra el individualismo; es lo que la propia palabra significa. Y para que las palabras no nos lleven a engaño, cuando digo socialismo no me refiero a un Partido. Hoy en día es muy posible que algunos Partidos y personas denominados liberales lo sean muy poco, o que los llamados socialistas no tengan del socialismo más que el nombre. Sin embargo, ese es un asunto que ahora mismo no nos interesa. Lo que pretendemos es, en esta reflexión, rememorar las raíces de nuestra inspiración, de nuestra tradición. Y esta tradición, durante todo el movimiento de emancipación del trabajador, en todos los moldes de institución de esa lucha, siempre es el pensamiento comunitarista. Así mismo les recordaría que la palabra "socialista" la inventaron los cooperativistas para autodesignarse, por lo que, en su sentido más original, es sinónima de "comunitarista" o "cooperativista". (Ese termino se utilizó por vez primera en noviembre de 1827, en la revista The Co-operative Magazine creada por R. Owen). En consecuencia, el cooperativismo es el socialismo original y lo que con ese concepto se expresa, contra el principio de concurrencia libre, es la prioridad ineludible de la comunidad. En este punto concurren el socialismo, el sindicalismo y el cooperativismo. A mi entender, una bonita expresión para manifestar esa primacía la ha ideado la Socialdemocracia Alemana en el punto primero de su Programa de Godesberg (1959): "La sociedad deseada por los socialistas, es aquella en la que cada ser humano podrá

gula zergatik ahaztu, esango nuke, haren kritika zorrotzak "gizakia gizakiagandik bakantzean" datzan libertateari, "norbanako burujabe egoista" burgesari, "indibiduo bere baitan itxi, bere baitara mugatuari", "bere baitan bildurik bakandutako monadaren askatasunari". Hain zuzen, historikoki sozialismoak ez dauka zentzurik indibidualismoaren aurkako erreakzio bezala baino, izenak berak hala dio. Eta, hitzek engaina ez gaitzaten, sozialismoa esaten dudanean, ez naiz Alderdiren bat esaten ari. Gaur oso posible da, liberalak deitzen diren Alderdi eta jende batzuk oso gutxi liberalak izatea, edo sozialistak deitzen direnak sozialismotik ez edukitzea izena besterik. Hau ez da gure arazoa orain. Gurea, meditazio honetan, gure inspirazioaren, tradizioaren sustraiak birgogoratzea zen. Eta tradizio hori, langileriaren emantzipazio mugimendu guztian, borroka horren erakunde molde ezberdin guztietan, pentsamendu komunitarista da beti. Bide batez gomutaraziko nizueke, "sozialista" hitza kooperatibistek asmatua dela, beren buruen izendatzeko, eta "komunionista" edo "kooperatibista"ren sinonimoa da bere jatorrizko esanahian. (R. Owenek sorturiko The Cooperative Magazine aldizkarian erabili da berba hori, 1827ko azaroan, lehenbiziko aldiz). Beraz, jatorrizko sozialismoa kooperatibismoa da, eta kontzeptu horrekin adierazten dena, konkurrentzia librearen printzipioaren aurka, komunitatearen lehentasun uztezina da. Horretan sozialismoak, sindikalismoak eta kooperatibismoak bat egiten dute. Lehentasun hori adierazteko espresio oso polita, nire gusturako, Sozialdemokrazia Alemanak bere Godesbergeko Programako (1959) lehen puntuan asmatu du: "Sozialistek gogo duten gizartea da, han gizon-emakume bakoitzak bere nortasuna askatasunean garatu ahal izango duena eta gizadiaren bizitza politikoan, ekonomikoan eta kulturalean kooperatu, komunitateko kide zerbitzari gisa («als dienendes Glied der Gemeinschaft»), erantzukizunez egin ahal izango duena".

desarrollar su personalidad en libertad y en la que, como servidor de la comunidad («als dienendes Glied der Gemeinschaft»), podrá cooperar responsablemente en la vida política, económica y cultural".

Temo que esta insistencia sobre la comunidad parezca polémica, pero no pretendía sino hacer una reflexión de los principios y bases fundamentales que la herencia de Arizmendiarrieta no puede olvidar. Este punto lo dejó claramente expresado: "El cooperativismo centra más su atención en la comunidad que en el individuo" (FC, III, 95). No quisiéramos por ello entrar en simplicidades tales como "el comunitarismo es bueno, el individualismo réprobo". A estas alturas, queramos o no, somos descendientes tanto del liberalismo clásico como del socialismo clásico. Nos encontramos en los albores del siglo XXI. Además, el siglo XX nos ha mostrado suficientemente los peligros que ambos conllevan en sus experiencias extremas, como para que alguien pretenda aún enorgullecerse a costa del otro. Nosotros estamos recordando y meditando acerca del pensamiento de Arizmendiarrieta, cuyas palabras nos enseñan: "Nuestra época es también aquella en la que nuestra conciencia social nos exige y promete más. Este compromiso con nuestro ámbito de convivencia, que ha de ser racional y consciente, nos tiene que llevar a crear un «nosotros» comunitario y solidario (...). Hemos pues de preparar y buscar los medios más adecuados para que nuestra comunidad lo sea de hombres libres y autogobernantes" (EP, II, 151) El cooperativismo, proveniente del espíritu solidario de una comunidad, ha de tratar de reorganizar esa comunidad un nivel más arriba. Vayamos, pues, a dar un paso más en nuestra reflexión y reparemos ahora en la praxis.

Bildur naiz komunitatearen eragote honek polemikoa emango duela, baina Arizmendiarrietaren herentziak ahazterik ez dauzkan funtsezko printzipioen eta oinarrien meditazio bat besterik ez zuen izan nahi. Ezin garbiago utzi digu hark puntu hori: "El cooperativismo centra más su atención en la comunidad que en el individuo" (FC, III, 95). Ez genuke horregatik "komunitarismoa ona da, indibidualismoa gaiztoa" bezalako sinplekerietan erori nahi. Liberalismo klasikoa, sozialismo klasikoa, honez gero gu, nahi ala ez, bienak gara oinordekoak. XXI. mendean murgiltzera goaz. Gainera, baten zein bestearen barruko arrisku ezkutuak, XX. mendeak nahikoa erakutsi dizkigu bien esperientzia estremoetan, oraindik inork bestearen kontura harrotu nahi izateko. Guk hemen egiten dihardugun, Arizmendiarrietaren pentsamendua gogoratu eta meditatzea da, berak holakoxe hitzetan irakatsi diguna: "Nuestra época es también aquella en la que nuestra conciencia social nos exige y promete más. Este compromiso con nuestro ámbito de convivencia, que ha de ser racional y consciente, nos tiene que llevar a crear un «nosotros» comunitario y solidario (...). Hemos pues de preparar y buscar los medios más adecuados para que nuestra comunidad lo sea de hombres libres y autogobernantes" (EP, II, 151). Kooperatibismoak, bera komunitate solidari baten izpiritutik sortuak, komunitate hori maila bat goragoko solidaritasunean birsortzen, egin behar du bere ahalegina. Goazen, bada, beste urrats bat ematera gure meditazioan, praxiari begira.

Supongamos que estamos de fiestas en nuestro municipio y el Ayuntamiento ha organizado una carrera. A primera vista —y en el sentido estrictamente legal—, toda la organización de la carrera es responsabilidad del Ayuntamiento y de los encargados por el mismo; parece que nuestro único cometido es mirar y aplaudir a los ciclistas. Aunque, si realmente somos gente de espíritu e iniciativa cooperativa, no seremos cooperativos exclusivamente en la fábrica y sabremos qué hacer sin que nadie nos lo tenga que decir: bien limpiar el pavimento de una zona peligrosa, o señalizarla; bien preparar una zona para que los ancianos y enfermos del pueblo puedan ver bien la carrera; bien idear algo para ofrecer un poco de consuelo a los ciclistas que llegan en los últimos puestos; cualquier cosa. Aunque sea responsabilidad suya, no lo dejemos todo en manos del Ayuntamiento. La constitución de la comunidad no es labor exclusiva del Ayuntamiento. Y la comunidad solamente se hace haciéndose.

No sé si el ejemplo es adecuado —no soy especialmente entendido en ciclismo—; sólo trataba de sugerir una idea.

Recientemente he conocido en Alemania una experiencia interesante que denominan "intercambio de talentos", en el Land no particularmente industrializado, pero de gran tradición protestante, Schleswig-Holstein. En estos momentos en el que el desempleo está tan extendido, en numerosos hogares hay algún joven recién licenciado con posibilidades de enseñar a tocar el piano, que es muy hábil en la cocina o en las labores de la huerta, que si fuera necesario limpiaría los cristales, pasearía al perro, cuidaría un grupo de niños o revisaría sus ejercicios, ayudaría un poco en los trabajos más simples de la tienda o el bar, daría conversación a los ancianos o acompañaría durante un par de horas a los enfermos; lo que quieran. Supongamos que mi "talento" sean los trabajos

Eman dezagun gure herrian jaiak direla, eta Udaletxeak karrera bat antolatu duela. Itxuraz —eta lege huts hutsean— karreraren antolaketa guztia Udalaren erantzukizuna da eta Udalak enkargatzen dituenena; badirudi guk beste zereginik ez daukagula, txirrindulariei begira egon eta txalotu baino. Benetan izpiritu eta ekimen kooperatiboko jendea bagara, ordea, ez gara lantegian bakarrik izango kooperatiboak, eta inork agindu gabe asmatuko dugu zer egin: arriskua dagoen bidegune batean zorua garbitu, edo seinaleak ipini; edo herriko zaharrenek eta gaisoek karrera ongi ikusi ahal izateko leku bat prestatu, edo azkeneko bukatzen duten karreristei kontsolazio piska bat eskaintzeko zerbait imaginatu, edozer gauza. Gauzak ez utzi, Udaletxearenak —Diputazio, Jaurlaritza, Estatuarenak— direla eta ikus dezala berak. Komunitatea egitea ez da Udaletxearen eginkizuna bakarrik. Eta komunitatea egin, eginez bakarrik egiten da. Ez da inoiz aski izango erakunde autonomikoak edukitzea, edo independentzia lortzea ere, erakundeok ez badute barruan komunitate egiaz bizi eta ekile bat, erantzunekoa, gordetzen.

Ez dakit adibidea egokia den, ziklismo kontuetan ez naiz bereziki aditua, ideia bat iradokitzeko besterik ez zuen balio nahi.

Alemanian "dohain trukea" esaten dioten saio polit bat ezagutu dut orain gutxi iparraldeko Schleswig-Holstein Land ez oso industrialean, baina tradizio protestante bortitzekoan. Langabezia hain zabaldua dagoen honetan, hainbat etxetan dago libre karrera bukatu duen gazte bat, pianoa jotzen irakas dezakeen norbait, sukaldaritzan edo baratzeko lanetan aski abila dena, besterik ez bada leihoak garbituko lituzkeena, edo txakurra pasian atera, arratsaldean haur talde bat begiratu edo ariketak egiten jagon, dendako edo tabernako lan txikietan piska bat lagundu, bakarrik dauden zaharrei solasa eman edo gaixoei ordu pare batean lagun

culinarios o la limpieza de cristales (no es necesario que sea tocar el piano). Existe un teléfono y llamo ofreciendo mi talento. Entonces, supongamos que al ama de casa que trabaja en una tienda no le queda tiempo para las labores de la cocina; pues, se las hago yo. Sin embargo no me lo paga con dinero. En cambio, mi coche está muy viejo y el motor ha comenzado a producir unos ruidos muy extraños. Llamo al citado teléfono preguntando si hay alguien cuyo talento sea el de arreglar motores. Así, yo a ti, tú a él, uno a otro y todos entre nosotros nos ayudamos mutuamente sin que nadie cobre a nadie y pagando con "talentos", no con dinero (y no precisamente con el "dinero negro", asimismo tan perseguido allá). Todos los que disponen de unas horas o algunos días libres y tienen ganas llaman a ese número y ofrecen sus "talentos", de cualquier índole, en una lista de ofertantes; en otra lista están relacionados los demandantes de facultades. De acuerdo a las necesidades de cada uno, en el municipio se propaga una mercado solidario de intercambio de talentos. No sé si esto funcionaría en nuestra sociedad; de cualquier forma, muestra que hay libertad para concebir fórmulas con el fin de encontrar soluciones sin estar mirando al Gobierno; soluciones ideadas por la propia comunidad que la descargan y fortalecen.

En la actualidad se censura muy a menudo el espíritu funcionarial, pero por desgracia, el espíritu funcionarial no sólo la podemos encontrar entre funcionarios. El espíritu del yo haré mi trabajo y el mundo que se las arregle está demasiado extendido en todos los ámbitos. Esto fue precisamente lo que Arizmendiarrieta quiso superar haciendo hincapié en el servicio a la comunidad.

Cuando nombramos a la comunidad, no siempre hay que entenderla como comunidad laboral. La comunidad puede abarcar expresiones diferentes en la sociedad: Ulgor es una comunidad

egin, nahi duzuena. Jo dezagun nik sukaldeko lanak egitea edo kristalak garbitzea dudala nire "dohaina" (ez du derrigor pianoa jotzea izan behar). Telefono bat dago eta hara deitzen dut, nire dohaina eskainiz. Orduan, eman dezagun, denda batean diharduen etxekoandreak ez du sukalde lanetarako astirik, eta nik egiten diot. Baina, kasu, ez dit dirutan ordaintzen. Bakarrik, nire autoa xaharra dago eta motorea zarata bitxiak egiten hasi da. Esandako telefonora deitzen dut, ea ba dagoen prest motoreak konpontzeko dohaina duen norbait. Horrela, nik hiri, hik hari, batak bestari eta denok elkarri laguntzen diogu, inork inori kobratu gabe eta batak besteari "dohainetan" ordainduz, ez dirutan (han ere oso pertsegitua dagoen "diru beltzik" gabe alegia!). Ordu batzuk, edo egun batzuk, libre dituzten eta gogoa duten guztiek, telefonora deitu eta eskaintzaile zerrenda batean beren "dohainak", edozein modutakoak, ematen dituzte; beste zerrenda batean, dohain eskaleak. Bakoitzaren premien arabera, dohain trukeen merkatu solidari bat hedatzen da herrian... Honek ere ez dakit gure gizartean funtzionatuko lukeen: formulak irudikatzea libre dagoela, erakusten du nolanahi ere, Estatuari begira egon gabe soluzioak aurkitzeko. Komunitateak berak asmatzen dituen soluzioak eta komunitatea karga-arintzen eta sendotzen dutenak.

Izpiritu funtzionariala asko maiseatzen da gaur, baina izpiritu funtzionariala zoritxarrez ez da funtzionarien artean bakarrik aurkitzen ahal. Nik nire lantxoa egin eta hor konpon mundua, izpiritu zabalduegia da barruti guztietan. Justu horixe zen, komunitatearen zerbitzua azpimarratuz Arizmendiarrietak gainditu nahi izan zuena.

Komunitatea esaten dugunean, ez da beti lankomunitatea ulertu behar. Komunitateak espresio ezberdinak har ditzake gizartean: Ulgor lankomunitate bat da; baina komunitateak dira orobat familia tradizionala, aymará mendi-tribua

laboral, pero así mismo, son comunidades la familia tradicional, la tribu montañesa o vecindad aymará del altiplano boliviano, la ciudad de Athenas de Aristóteles (la "coinonía" política), un grupo de teatro convenientemente cohesionado, Arrasate, la comunidad lingüística (tal vez de una lengua socialmente no aceptada), una secta religiosa, el convento de frailes de Arantzazu, los gitanos, o las asociaciones de compatriotas congregados por la emigración (la "comunidad vasca" de Argentina, la "comunidad alemana" de Chile). La comunidad no necesariamente se gobierna con arreglo a los principios comunitarios; puede organizar su vida de mil formas despóticas o democráticas más o menos libres que prefiera, o dejar total libertad sin ningún tipo de organización. El concepto de comunidad carece de límites fijos. El espíritu comunitario inventa innumerables formas de vivir, tal y como nos muestran tanto la historia económica como la religiosa o la cultural.

edo auzoa Boliviako goilautadan, Aristoteleren Athenas ("koinonía" politikoa), ongi kohesionaturiko teatro talde bat, Arrasate, hizkuntz komunitatea (sozialki onartua ez den hizkuntzakoa apika), sekta erlijioso bat, Arantzazuko fraideen konbentua, ijitoak, edo emigrazioan elkarretaratu diren herrikideen batzak (Argentinako "euskal komunitatea", Txileko "komunitate alemana"). Komunitatea ez da derrigor printzipio komunitarien arabera gobernatzen, berak nahi duen mila modu despotiko nahiz demokratiko gutxi-asko lazotan antola dezake bere bizitza, edo batere antolatu gabe libre eduki. Komunitatearen kontzeptua muga zehatz gabekoa da. Izpiritu komunitariak bizitzeko forma ezberdin asko asmatzen du, historia ekonomikoak adina erlijiosoak eta kulturalak erakusten digutenez.



El espíritu comunitario puede establecer los Juegos Olímpicos en Grecia, o la inigualable institución del trabajo vecinal en Euskal Herria. A lo dicho; Arizmendiarrieta considera la experiencia cooperativa industrial de Arrasate como fruto del espíritu comunitario de Euskal Herria. Empero no podremos pensar que ese antiguo espíritu ha sobrevivido en la sociedad moderna exclusivamente en Arrasate, ni siquiera que toda aquella tradición se ha de agotar en el cooperativismo industrial. ¿No habrá dado ningún otro fruto en nuestro tiempo que, diferente en apariencia, interiormente sea muy similar? Puesto que tratamos de replantear el pensamiento de Arizmendiarrieta, es justo buscar variantes de ese pensamiento tanto en nuestra propia casa —cuando en todo el mundo los muros y límites se están desplomando— como en la extensa geografía. A mi entender, en todas las relaciones los cooperativistas deberían observar con el máximo interés en qué otros lugares, del mundo o de aquí mismo, se da su mismo espíritu, incluso en otro tipo de organizaciones o proyectos. Ya que, al menos si los cooperativistas de antaño no han olvidado completamente su objetivo de transformar la sociedad y su sueño de un "nuevo orden", vuestra exitosa experiencia llevada a cabo conforme a bases y principios comunitarios debería, creo yo, buscarse aliados en todos los niveles y en nuevos campos, sin quedarse encerrada en el ático de vuestro éxito; es decir, mirar qué otras iniciativas surgidas a partir de la misma filosofía comunitaria existen en los alrededores, observar, buscar colaboración, con el fin de vigorizar y amplificar la fuerza que puede cambiar la sociedad. Puesto que, si bien es verdad antigua, aún sigue siendo verdad, que el objetivo último del cooperativismo es tratar de crear paulatinamente una nueva sociedad. Según Arizmendiarrieta: "Promoción integral, individual y comunitaria, protagonizada por el pueblo, por los propios sujetos afectados, se hace viable a través de la cooperación, en marcha hacia una nueva sociedad sin clases, frater-

Izpiritu komunitariak Joko Olinpikoak sor ditzake Grezian, edo auzo-lanaren instituzio paregabea Euskal Herrian. Esan bezala, Arrasateko esperientzia kooperatibo industriala, euskal izpiritu komunitariaren fruitutzat jo du Arizmendiarrietak. Baina ezin pentsatuko dugu, izpiritu zahar horrek Arrasaten bakarrik biziraun duenik gizarte modernoan, ezta tradizio hark guztiak kooperatibismo industrialean agortu behar duenik ere. Ez ote du beste fruiturik eman gure garaian, beharbada azalean diferentea eta barruan hagitz berdina? Hemen Arizmendiarrietaren pentsamendua berpentsatzen ari garenez gero, bidezkoa dugu pentsamendu horren barianteak bilatzea geure etxean nahiz —mundu guztian murruak eta mugak erortzen ari direnean— nazioarte zabalean. Kooperatibistek, nik uste, harreman guztietan, beren izpiritu berdina beste non dabilen, interes bizienaz beharko lukete begiratu, munduan nahiz hemen inguruan, bestelako antolamendu eta proiektuetan ere. Izan ere, gizartea eraberritzeko xedea eta "ordenu berri" baten ametsa behialako kooperatibistek zeharo ahaztuak ez badauzkate behintzat, oinarri eta printzipio komunitarien arabera taiuturiko zuen esperientzia arrakastatsuak, aliatuak bilatu beharko lituzke, nik uste, maila guztietan eta kanpo berrietan, zeuen arrakastaren ganbaran itxita geratu gabe; hots, inguruan filosofia komunitari berak sortarazitako zer beste ekinbide dabilen, behatu eta elkartasuna bilatu, denen artean indartzeko eta zabalagotzeko gizartea eraldaraz dezakeen bultzada. Zeren-ta aspaldiko egia baita, baina oraindik egia, poliki-poliki gizarte berri bat sortzen ahalegitea dela kooperatibismoaren azken jomuga. Arizmendiarrietaren hitzetan: "Promoción integral, individual y comunitaria, protagonizada por el pueblo, por los propios sujetos afectados, se hace viable a través de la cooperación, en marcha hacia una nueva sociedad sin clases, fraternal, dinámica, justa" (CLP, I, 296). Eta helburu hori ez da kooperatibismoarena bakarrik.

nal, dinámica, justa" (CLP, Y, 296). Y este propósito no sólo es del cooperativismo.

Aquí mismo, en Gipuzkoa, cuando el año pasado Joseba Jaka murió a causa de un accidente, nos enteramos de la empresa cultural que habían erigido en los últimos veinte años él y sus compañeros de trabajo; y entonces nos percatamos de que toda esa obra, tal vez el mayor consorcio de la cultura vasca —la compañía Elkar productora de libros y discos, la distribuidora Zabaltzen, las librerías Bilintx, Urretxindorra, Xalbador, Zabal, etc.— se ha constituido básicamente con bastante arreglo a los principios cooperativos en lo que a la idea se refiere. A su muerte X. Mendiburu Elizegi escribió lo siguiente en el periódico Egunkaria: "Joseba Jaka comenzó de la nada: nacido en una familia numerosa y necesitada, durante la niñez estuvo sirviendo, apenas sin asistir a la escuela, y llegó a construir una gran empresa. Sin embargo existe una diferencia fundamental: Joseba Jaka nada poseía, ya que invertía sistemáticamente todas sus ganancias en proyectos culturales vascos (...). En las empresas por él fundadas nunca se repartió ningún beneficio, los propietarios percibían el sueldo de los profesores de las ikastolas y en sus estatutos dejó escrito que si alguno quería vender las acciones, éstas valdrían una sola peseta". El lema de Joseba Jaka ha sido la profesionalidad a nivel empresarial y la militancia a nivel personal, tanto para él como para sus compañeros. El trabajo al servicio de una idea y de una comunidad, no como provecho particular. Sus compañeros han cedido estos días la propiedad de todos los bienes a la Fundación cuyo nombre significativo es Euskalgintza Elkarlanean.

Dejando volar a la imaginación ("los grandes ideales no necesitan ser precisamente asequibles para que puedan sernos útiles": FC, II, 244), ¿por qué no soñar con la cooperación conjunta, el apoyo mutuo y la complementación recíproca

Hementxe Gipuzkoan, Joseba Jaka ezbehar batean ihaz hil zenean, jakin genuen, azken hogei urtean nolako lantegia altxatu duten berak eta bere lankideek kulturgintzan; eta obra guzti hori, euskal kulturgintzako kontsortzio agian handiena —Elkar liburu eta diska produkzioko etxea, Zabaltzen banatzailea; Bilintx, Urrentxindorra, Xalbador, Zabal liburudendak, etab.— funtsean printzipio kooperatiboei nahiko hertsiki atxekirik eraikia dela, ikasi genuen orduan, ideiaren aldetik. Haren heriotzakoan X. Mendiburu Elizegik hauxe idatzi zuen Egunkarian : "Joseba Jaka hutsetik hasi zen: familia handi eta behartsu batean jaioa, morroi ibili zen umetan, eskola ia zapaldu ahal izan gabe, eta enpresa handi bat eraikitzera iritsi zen. Ezberdintasun funtsezko bat dago ordea: Joseba Jakak ez zuen ezer bererik, euskal kulturaren aldeko proiektuetan sartzen zituelako irabazi guztiak, sistematikoki (...). Berak sortutako enpresetan ez zen inoiz irabazirik banatu, jabeek ikastoletako irakasleen soldata jasotzen zuten eta estatutuetan idatzita utzi zuen inork akziorik saldu nahi izanez gero pezeta bakarra balio zutela". Joseba Jakaren lema: enpresa mailan profesionaltasuna, pertsona mailan militantzia, izan da, beretzat bezala bere lankideentzat. Lana, ideia baten eta komunitate baten zerbitzuan, ez noren irabazpide partikular bezala. Haren partaideek Euskalgintza Elkarlanean izen esanahitsua daraman Fundazioan utzi dute, orain egunotantxe, ondasun guztien jabetasuna.

Irudimenari jaregi utzita ("los grandes ideales no necesitan ser precisamente asequibles para que puedan sernos útiles": FC, II, 244), zergatik ez amestu elkarrekin kooperatzen, elkarri laguntzen eta elkar osatzen, kulturgintzan, orain sortuko duzuen Unibertsitatean, industrian, finantzetan, osasunbidean, alor guztietan, komunitatearen zerbitzu-izpiritu horretako proiektuak eta jendeak, denak elkar hartuta komunitate berri bat sortzeko eginahalean? Gutxienez amets polita da, ez du ematen inposi-

en la construcción cultural, la Universidad que próximamente instituiréis, la industria, las finanzas, la sanidad, en todas las áreas, en el esfuerzo por establecer una comunidad aunando los proyectos de ese espíritu de servicio de la comunidad y la gente? Es, cuando menos, un bonito sueño que no parece imposible, pues como nos advertía Arizmendiarrieta: "No poco o casi todo lo realizado por el esfuerzo humano consciente y responsable ha sido en una primera instancia un bello ideal y nada más" (CLP, Y, 269).

Deberíamos reseñar especialmente que el espíritu de servicio de la comunidad en la escuela y la enseñanza, en la creación cultural en general, posee una importancia esencial y unas exigencias extraordinarias (por ello hablamos de la "vocación" del profesor o el escritor). No solamente porque en vuestras manos se encuentra la idea de una Universidad cooperativa: ¿recuerdan aquellos slogans y dichos chinos tan estimados por Don José María tales como "saber es poder", "dale un pescado a un hombre y comerá un día; enséñale a pescar y comerá el resto de su vida", "hay que socializar el saber para socializar el poder", etc.? Don José María siempre lo tuvo muy claro: "la enseñanza y la educación son la primera empresa de un pueblo" (EP, Y, 269) Incluso cuando ha escrito sobre la historia de la experiencia cooperativa, Arizmendiarrieta ha mencionado siempre dándole la mayor importancia el siguiente precepto indispensable: ha sido la educación técnica y moral anterior de los partícipes la que ha posibilitado el cooperativismo en Arrasate (v. El hombre cooperativo, 1984, 159-161, 168-171, 175-180, 197 y sig., 448 y sig., 802, 917 ). "La génesis de esta Experiencia hay que situarla en el proceso de una acción educativa de profundo y actual sentido humanista, que entraña no solamente la toma de conciencia de valores humanos, sino el consiguiente compromiso personal y social de aplicarlos, determinando una promoción socioeblea, eta "no poco o casi todo lo realizado por el esfuerzo humano consciente y responsable — oharterazi digu Arizmendiarrietak— ha sido en una primera instancia un bello ideal y nada más" (CLP, I, 269).

Komunitatearen zerbitzu-izpirituak eskolan eta irakaskuntzan, orohar kulturgintzan, berebiziko garrantzia eta eskakizunak ere apartekoak dauzkala (horregatik irakaslearen edo idazlearen "bokazioaz" mintzo ohi gara), bereziki azpimarratu beharko genuke. Ez oraintxe zuen eskuetan Unibertsitate kooperatibo baten ideia darabiltzuelako bakarrik: gogoratzen dituzue "saber es poder", "dale un pescado a un hombre y comerá un día; enséñale a pescar y comerá el resto de su vida", "hay que socializar el saber para socializar el poder", etab., Don Jose Mariak biziki maite zituen slogan eta jakinduria txino haiek? Don Jose Mariak oso garbi eduki zuen hori beti: "la enseñanza y la educación son la primera empresa de un pueblo" (EP, I, 269). Esperientzia kooperatiboaren historia egin duenean ere, ezinbesteko aurretiazko hau aipatu du beti Arizmendiarrietak inportantziarik handiena aitortuz: kideen aurretiko hezkuntza teknikoak eta moralak egin du gero kooperatibismoa posible Arrasaten (ik. El hombre cooperativo, 1984, 159-161, 168-171, 175-180, 197 eta hurr., 448 eta hurr., 802, 817). "La génesis de esta Experiencia hay que situarla en el proceso de una acción educativa de profundo y actual sentido humanista, que entraña no solamente la toma de conciencia de valores humanos, sino el consiguiente compromiso personal y social de aplicarlos, determinando una promoción socioeconómica ineludible, reclamada por el bien común. Esta acción formativa no se limita a una élite, sino implica la atención sobre una base amplia de población, es progresiva y sin discriminaciones arbitrarias, polivalente, teórica y práctica, técnica y social" (CLP, III, 182-183).

conómica ineludible, reclamada por el bien común. Esta acción formativa no se limita a la élite, sino implica la atención sobre una base amplia de población, es progresiva y sin discriminaciones arbitrarias, polivalente, teórica y práctica, técnica y social" (CLP, III, 182-183).

Permítanme que por un momento me ponga un poco insolente. Arizmendiarrieta informa que en Arrasate, antes de la creación de la empresa cooperativa, se ha llevado a cabo durante quince años una labor continuada de siembra con el fin de educar a los jóvenes en camino de convertirse en cooperativistas no sólo técnicamente, sino también en el aspecto humano en lo que a responsabilidad y valores solidarios se refiere. ¿Cómo se lleva a cabo hoy en día esa enseñanza, educación, de los jóvenes? ¿Se efectúa de algún modo? ¿Existe en los estudios de sus técnicos alguna asignatura destinada a los valores cooperativos y la doctrina social? Sin embargo todo el trabajo no le corresponde exclusivamente a la escuela. Si anteriormente esta necesidad la cubría Don José María personalmente y de mil formas distintas (profesor, asesor, predicador, ejecutor de folletos, periodista, etc.), ¿qué solución se le ha dado posteriormente, al faltarnos él, a esa carencia en la escuela, durante las horas libres, en la conducción de lecturas, etc., en la formación integral del joven? Creo que esta es una pregunta que Arizmendiarrieta os lanza hoy con urgencia. Arizmendiarrieta os ha formado a vosotros: ¿qué hacéis vosotros para formar a los nuevos jóvenes en el espíritu de la cooperación? No existe el cooperativismo industrial sin una profunda formación cooperativa espiritual. Y diría que la deuda y la obligación que todos tenéis con Don José María es precisamente asegurar esa formación.

Incluso desde este perfil, mucha gente de Euskal Herria pensamos que vuestra idea de Universidad, frente a otras Universidades, será realmente importante para el futuro, y tenemos

Permiti zaidazue piska bat lotsagabe jartzea momentu bat. Arizmendiarrietak informatzen du, Arrasaten, enpresa kooperatiboaren sorrera aurretik, hamabost urteko ereintza lan etengabea egin dela, kooperatibistak izango diren gazteak, teknikoki bezanbat hezitzeko gizatiarki erantzukizunean eta balio soldarietan. Nola egiten da gaur gazteen irakaskuntza hori, hezkuntza hori? Batere egiten al da? Zuen teknikoen estudioetan, ba al dago balio kooperatiboen eta doktrina sozialaren ikasgai bat? Eginkizuna ez da, baina, eskolakoa bakarrik. Lehenago betekizun hau beti Don Jose Mariak pertsonalki mila modutan betetzen bazuen (gazteen irakasle, aholkulari, predikari, aldizkaritxogile edo kazetari, etab.), zer soluzio aurkitu zaio gero hutsune horri, hura falta zaigunean, alegia eskolan, ordu libreetan, irakurgaien gidaketan, etab., gazteen formazio guztian? Nik uste dut, Arizmendiarrietak zuei gaur premiatsu egiten dizuen galdera bat hauxe dela. Arizmendiarrietak zuek hezi zaitue: zer egiten duzue zuek, gazte berriak kooperazioaren izpirituan hezitzeko? Ez dago kooperatibismo industrialik, hezkuntza kooperatibo izpiritual sakon bat gabe. Eta kooperatibista guztiek Don Jose Mariarekin duzuen zorra eta obligazioa dela, esango nuke, gazteen formazio hori ziurtatzea.

Alde honetatik ere, zuen Unibertsitatearen asmoa, beste Unibertsitateen alboan, Euskal Herrian jende askok pentsatzen dugu izugarri inportantea izango dela etorkizunerako, eta itxaropen handiak jartzen ditugu zuen proiektuan. Baina, inportantea ezezik erabakiorra, Unibertsitatearen zein eredu garatzen duzuen, izango da. Zuen esku egongo da, pedagogia zinez kooperatibo bat garatzea, metodo mailan nahiz balio etikoen mailan. (Pedagogiako irakasle lagun batek esaten dit, irakaskuntzan lehenago norgehiagoka hobesten zela, eta ikasleak beste guztien aurka saiatu behar zuela hoberena izaten; bitartean esperientziak frogatua omen dago, bai efikazia eta bai gizatasun mailan,

una gran confianza en vuestro proyecto. Pero, además de importante será decisivo el modelo de Universidad que desarrolléis. En vuestras manos estará el desarrollar una pedagogía realmente cooperativa, tanto a nivel de métodos como de valores éticos. (Un amigo profesor de pedagogía suele decirme que anteriormente se utilizaba el concurso en la enseñanza y el alumno tenía que tratar de destacar sobre el resto de los compañeros; mientras tanto, la experiencia parece haber probado que "el aprendizaje en colaboración" suele dar mejores frutos que el concurso: se forman grupos y los participantes tienen que ayudarse entre sí, la información tiene que correr entre todos, contrastándola, debatiéndola, adaptándola continuamente, perfeccionándola). Una pedagogía destinada a aprender a vivir en comunidad, a ser amistoso, trabajar los valores, amar los montes del entorno, conservar las tradiciones, practicar la ecología física y cultural. (Antaño era la familia la que transmitía la cultura —¡"La Dama de Anboto" y similares son cultura! ¡Son filosofía y mística! —; ahora corresponde a la escuela seguir con la transmisión y elevarla a otro nivel). Los hombres y mujeres desarrollamos nuestro sistema de valores, nuestra personalidad, junto a la comunidad, en la comunidad. A veces, incluso luchando contra la comunidad; otras veces sorbiendo de ella y asimilándola. Como subraya Javier San Martín de la UNED, en su análisis de la fonomenología de Husserl y de la autocociencia, "el hombre siempre adquiere conciencia en el seno del conocimiento de otros(...). Yo soy un elemento de una coletividad, que se concretiza o materializa no sólo en la presencia efectiva de otros seres humanos, sino en la cultura, en los textos, en la multiplicidad de significados objetivados que se pueden encontrar en el mundo que nos rodea y que nos remiten a los seeres humanos que los construyeron.". El ser humano toma de la comunidad y vive y conserva con ella sus absolutos y relativos, sus quehaceres, el sentido de su vida. Puede lehiaketak baino fruitu hobeak ematen dituela "elkartasunezko ikaskuntzak": taldeak osatu eta han kideek elkarri lagundu behar diote, informazioak korritu egin behar du guztien artean, kontrastatu, eztabaidatu, etengabe birregokitu, perfekzionatu). Komunitatean bizitzen ikasteko pedagogia bat. Laguna izaten, balioak lantzen, inguruko mendiok maitatzen, tradizioak zaintzen, ekologia fisikoa eta kulturala praktikatzen, ikasteko. (Lehen familiak trasmititzen zuen kultura —"Anbotoko Damie" eta holakoak kultura dira! Filosofia bat eta mistika bat dira!— orain eskolari dagokio trasmisioa jarraitzea eta beste maila batera jasotzea). Hizkuntzaren garrantziaz, komunitate anaikor bat izateko, ezer esan beharrik ez daukagu: beraz, hizkuntzaren birregintzaz herriaren birregintzarako. Gizon-emakumeok komunitatearekin batera, komunitatean, garatzen dugu bakoitzak gure balio sistema, gure nortasuna. Batzuetan komunitatearekin borrokan, aurka; beste askotan handik edoski eta gureganduz. Hala azpimarratzen du Javier San Martin UNEDeko irakasleak, Husserlen fenomenologia eta autokontzientziaren analisia esplikatzen dihardduela, "el hombre siempre adquiere conciencia en el seno de una comunidad, es decir, conociéndose en el seno del conocimiento de otros (...). Yo soy un elemento de una colectividad, que se concretiza o materializa no sólo en la presencia efectiva de otros seres humanos, sino en la cultura, en los textos, en la multiplicidad de significados objetivados que se pueden encontrar en el mundo que nos rodea y que nos remiten a los seres humanos que los contruyeron" (La fenomenología de Husserl como utopía de la razón, 1987, 102). Gizakiak komunitatetik hartzen ditu eta komunitatearekin bizitzen eta gordetzen ditu bere absolutuak eta erlatiboak, bere zereginak, munduaren eta bere bizitzaren zentzua. Hori zentzu indibidualista, egoista bat izan bailiteke; edo zentzu kooperatibo, solidari, herritar eta herrizale bat.

tratarse de un sentido individualista, egoísta, o un sentido cooperativo, solidario, de amor por su pueblo.

En segundo lugar está el trabajo: no me extenderé, ya que todos sabéis que los dos polos del pensamiento de Arizmendiarrieta eran la formación y el trabajo. Y ¿será necesario decir que el trabajo, entendido como servicio a la comunidad, nos requiere en primera instancia la creación de trabajo? No obstante, este tema merece una pausada reflexión.

El mundo cambia vertiginosamente en nuestro entorno, en las ciencias, la técnica, los moldes de organización y relaciones, las ideas. Debemos adaptarnos a la carrera del mundo (es como se debe interpretar la remodelación que resume el nuevo nombre de Mondragón Corporación Cooperativa). Aunque, si el cooperativismo tiene la necesidad de renovar sus sistemas y estructuras, tiene asimismo la necesidad de actualizar su espíritu. También en la vida del espíritu "Vivir es renovarse". Según Arizmendiarrieta, lo que diferencia una empresa capitalista de una empresa cooperativa no es su forma jurídica, sino el espíritu que los anima. Si el espíritu es el mismo, la desigualdad jurídica no es motivo de diferencia (FC, Y, 123). El éxito empresarial, considerado desde ese punto de vista, no es más que una condición necesaria para la consecución de objetivos más elevados. El propósito final del cooperativismo —resumiendo nuestra reflexión de hoy— es la nueva sociedad, "el/la nuevo/a hombre/mujer"; es decir, humanizar el trabajo, superar la cultura egoísta que hemos heredado, crear una nueva comunidad. La empresa cooperativa no es más que el punto de partida. Hay que pasar de la remodelación empresarial a la renovación social: "Un movimiento cooperativo queda en algo así como un arco sin cerrar mientras no llegue a la interacción entre comunidad y cooperativas" (FC, Y, 267-268). Somos conscientes de

Gero, lana: ez naiz luzatuko, denok badakizuelako, Arizmendiarrietaren pentsamenduaren polo biak hezkuntza eta lana zirela. Eta esan beharrik ba ote dago, lanak, komunitatearen zerbitzu bezala ulertuta, aurren-aurrenik lana sortzea eskatzen digula gaur? Baina gai honek merezi luke beste meditazio bat, astiro-astiro...

Ziztu bizian aldatuz doa mundua gure inguruan, zientzietan, teknikan, organizazio eta harreman moldeetan, ideietan. Egokitu beharra daukagu munduaren lasterketari (hala ulertu behar da Mondragón Corporación Cooperativa izen berriak laburbiltzen duen eraberrikuntza). Baina kooperatibismoak bere sistemak eta egiturak berritu beharra badauka, egunero berritu beharra dauka izpiritua orobat. "Bizitzea erreberritzea da" izpirituaren bizitzan ere. Arizmendiarrietak esaten zuenez, enpresa kapitalista bat eta enpresa kooperatibo bat ezberdintzen dituena ez da bien forma juridikoa, animatzen dituen izpiritua baino. Hori berdinduz gero, diferentzia juridikoak ez du ezer berezten (FC, I, 123). Arrakasta enpresariala, horrela ikusita, ezinbesteko baldintza baizik ez da, tresna beharrezko baten eran, xede altuagoetarako. Kooperatibismoaren azken helburua —gaurko gogoeta hau laburbilduz esateko— gizarte berria da, "gizon-emakume berria"; hots, lana gizatiartzea, heredatu dugun kultura egoista gainditzea, komunitate berria sortzea. Abiapuntua bakarrik da lantegi kooperatiboa. Enpresa berritzetik gizartearen berrikuntzara pasa behar da: "Un movimiento cooperativo queda en algo así como un arco sin cerrar mientras no llegue a la interacción entre comunidad y cooperativas" (FC, I, 267-268). Badakigu helburuak urrun daudela: egon ere idealak ez daude eskua luzatu eta poltsikoan sartzeko, eta bai gure borrokabide ilunean goitik argi egiteko. Ideal horrekin beti, kooperatibistek administrazio lokaleko organismoak biziberritzen, herriko ekintzetan partehartzen; lana, irakaskuntza, osasuna, bizitza osoa "kooperatibizatzen", h. d.,

que los objetivos están muy lejanos: ciertamente los ideales son para alargar la mano y cogerlos, y sí para iluminar desde lo alto nuestra oscura vida de lucha. Con este ideal, los cooperativistas tendrán que procurar reanimar los organismos de administración locales, participar en las actividades municipales, "cooperativizar" el trabajo, la enseñanza, la salud, toda la vida, al servicio de la comunidad, hasta la implantación de la nueva comunidad cooperativa. Así, si bien el ejemplo anteriormente citado de la carrera organizada por el Ayuntamiento, es decir, el de la iniciativa pública que tenemos que tomar, es mío, el pensamiento es totalmente de Arizmendiarrieta (CLP, Y, 240)

komunitatearen zerbitzu osoan, saiatu beharko dute, komunitate berri kooperatiboa munduratu arte. Horrela Udaletxeak antolaturiko karrerarena lehen hor goian, sozialki guk osatu beharreko ekimen publikoarena alegia, adibidea neurea zen, baina pentsamendua guztiz Arizmendiarrietarena (CLP, I, 240).



Servicio, trabajo, iniciativa: quizá alguien diga que son términos duros y tristes. No se puede negar que supongan unas exigencias realmente duras. No obstante, en su lugar otras palabras tienen el mismo valor: colaboración, apoyo, confianza, solidaridad. Y la alegría de construir entre todos una nueva sociedad. Otros —políticos, sindicatos— harán su parte, igualmente importante. Aún así, la función de las cooperativas continúa ocupando el primer lugar. Tal y como una vez Arizmendiarrieta escribió en euskara: "Para el bien de Euskal Herria, en estos momentos es más necesario que nunca llevar a cabo los cambios más profundos y beneficiosos, actuando siempre bajo el yugo de la colaboración (...) Animo y sigamos siempre adelante, aunque no seamos ni ricos, ni tan abundantes como otros: si somos capaces de actuar más cooperativamente que nadie, pocos podrán ofrecer más", cuya cita original es la siguiente: "Inoiz izan dogun premiñarik aundiena daukogu, alkartasun-buztarri pean jokatuz, aldaketarik sakon eta onuragarrienak aurrera eramateko Euskadiren onerako (...). Aurrera beti eta gora, nahiz eta aberatsak izan ez, edo nahiz eta beste batzuk baino ugariagoak be ez: edozein baino alkartsuago jokatuteko izanez, gutxik geiagorik egin ahal izango digute". Paso a paso, siempre adelante, siempre para arriba. Así como la tierra vasca, el proyecto cooperativo es exigente y gratificante. "El hombre arraigado a la tierra que lo vio nacer, a esta tierra a la que ama y respeta desde lo más profundo de su esencia, es duro y alegre, sencillo y profundo como ella" (FC, IV, 168). Es así como desea ser el cooperativismo de Arrasate: duro y alegre. Su sueño es crear un nuevo ser en esta vieja tierra. Y con el nuevo ser un pueblo nuevo, el nuevo Euskal Herria.

Zerbitzua, lana, ekimena: beharbada hitz gogor eta tristeak direla, esango du norbaitek. Ez dago ukatzerik, badituztela eskakizun garratzak. Baina horien lekuan beste hitz batzuek berdin balio dute: elkartasuna, laguntza, konfiantza, solidaritza. Eta izpiritu horrekin denon artean gizarte berri bat eraikitzen aritzeko poztasuna. Beste batzuek —politikoek, sindikatuek— beren partea egingo dute, inportantea hori ere. Kooperatiben eginkizunak lehen-lehen mailakoa izaten jarraitzen du haatik. Arizmendiarrietak berak behin euskaraz idatzi zuen legez: "Inoiz izan dogun premiñarik aundiena daukogu, alkartasun-buztarri pean jokatuz, aldaketarik sakon eta onuragarrienak aurrera eramateko Euskadiren onerako (...). Aurrera beti eta gora, nahiz eta aberatsak izan ez, edo nahiz eta beste batzuk baino ugariagoak be ez: edozein baino alkartsuago jokatuteko izanez, gutxik geiagorik egin ahal izango digute". Pausoz-pauso, beti aurrera, beti gora. Eusko lurra bezalaxe, egitasmo kooperatiboa exigentea eta pozgarria da. "El hombre arraigado a la tierra que lo vio nacer, a esta tierra a la que ama y respeta desde lo más profundo de su esencia, es duro y alegre, sencillo y profundo como ella" (FC, IV, 168). Horrelakoxea izan nahi du Arrasateko kooperatibismoak ere: gogorra eta alaia. Bere ametsa gizaki berri bat sortzea da herri zahar honetan. Gizaki berriarekin herri berri bat, Euskal Herri berria.